

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2017-2018 ikasturtea

Plautoren *Miles Gloriosus* (1-669) antzezlanaren
euskarazko itzulpena eta oharrak

Egilea: Maialen Utrilla Arana

Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea

Ikasketa Klasikoak Saila

AURKIBIDEA

1. Plauto eta <i>Miles gloriosus</i>	2
2. Itzulpen-prozesua.....	5
3. Itzulpen-arazoak	7
3.1. Jatorrizko testuaren irakurketa ezberdinak	7
3.2. Pertsona-izenen itzulpena	8
3.3. Erregistroa.....	9
Taula 1: PIRGOPOLINIZES, militarra.....	10
Taula 2: ARTOTROGO, Pirgopolinizesen parasitoa.....	10
Taula 3: PALESTRION, Pleusiklesen eta militarren esklaboa.....	10
Taula 4: PERIPLEKTOMENO, agurea, militarren bizilaguna.....	11
Taula 5: ESZELEDRO, Pirgopolinizesen esklaboa.....	12
Taula 6: FILOKOMASIA, Pleusiklesen neska-lagun gaztea.....	12
Taula 7: PLEUSIKLES, atenastar gaztea.....	13
3.4. Lexikoa	14
3.5. Akotazioak.....	18
3.6. Erreferentzia kulturalak	19
4. Itzulpena	20
5. Bibliografia.....	47

1. Plauto eta *Miles gloriosus*¹

Bere erritmo biziko komediari esker, latindar antzerkigile garrantzitsuenetako bat da Plauto. Nik *Miles gloriosus* buruz hitz egingo badut ere, autoreak beste hainbat obra esanguratsu ditu, horien artean, *Aulularia*, *Bacchides* eta *Mostellaria*.

Plauto, latinez Titus Maccius Plautus, Sarsinan jaio zen K.a. 254. urte inguruan eta K.a. 184. urtean hil zen Erroman. Ezer gutxi dakigu idazlearen bizitzari buruz. Gaztea zenean Erromara joan zen merkatari moduan lan egitera, baina porrot egin zuen. Hori dela eta, lehen obrak idazten zituen bitartean errotaria izan zela uste da, baina bere lanen arrakastaren ondorioz, bizitza idazteari eskaini zion.

Ugariak dira bere komediak. 130 antzerki idatzi zituela esaten da. Varron kritikoak, ordea, K.a. I. mendean esan zuen horietatik 21 bakarrik zirela autentikoak. Hauek dira, hain zuzen ere, gaur egunera arte iritsi direnak:

- *Asinaria*
- *Mercator*
- *Amphitruo*
- *Cistellaria*
- *Bacchides*
- *Poenulus*
- *Truculentus*
- *Menaechmi*
- *Miles gloriosus*
- *Vidularia*
- *Stichus*
- *Persa*
- *Epidicus*
- *Aulularia*
- *Mostellaria*
- *Curculio*
- *Pseudolus*

¹ Autoreari eta obrari buruzko informazioa jasotzeko bereziki Mercedes González-Habaren itzulpeneko sarreran (González-Haba, 1996) eta Pilar Jimenezen artikuluan (Jimenez, 1978) oinarritu naiz.

- *Captivi*
- *Rudens*
- *Trinummus*
- *Casina*

K.a. 215. urtearen inguruan hasi zen antzerkia idazten. Autore greziarren komedia berria hartu eta erromatarren gogora egokitu zuen, horregatik bere antzerkia *fabula palliata* dela esaten dugu. Besteak beste, Menandro, Filemon eta Difilo idazleen antzerki-lanak hartu zituen oinarritzat.

Jorratzen dituen gaiak antzekoak dira obra guztietan. Gizartearen bizioei kritika egiten die eta amodio-istorio bat kontatzen du. Ohikoa da gaizkiulerturen bat egotea eta errealtatea itxurarekin kontrajartzea.

Plautoren ekarpena bereziki garrantzitsua da bere hizkuntza biziagatik eta hori lortzeko erabiltzen dituen baliabideengatik. Maileguak, hitz-jokoak eta biraoak bere lanaren bereizgarri izanik, Erromako jende xehearen hizkera islatzen du bere obretan, eta gertaera barregarriak eta pertsonaia bereziak sortzen ditu. Askotan argumentu sinpleen gainean egiten du lan, egoerak eta pertsonaien ezaugarriak esajeratu ditzake-eta. Hain da garrantzitsua bere lana, non eragin handia izan duen garai guztietako antzerkigileengan, besteak beste, Shakespearerengan, Molièrerengan eta Goldonirengan.

Miles gloriosus dagokionez, Plautoren komediarik arrakastatsuenetariko bat dela esan genezake. K.a. 205. urtearen inguruan kokatzen da, obran Nevio poetaren espetxeratzea aipatzen da-eta. Beste obrak bezala, hau ere *fabula palliata* bat da, eta obra greko originalaren izenburua *Alazon* da. *Miles gloriosus* autorearen lan guztien artean onenetariko bat dela esan genezake, izan ere, Plautoren estiloa argi islatzen da bertan; ezin hobeto erabiltzen dira efektu komikoak.

Antzerkia bost ekitalditan banatzen da eta argumentua ez da konplexua: Pleusikles, atenastar gaztea, Naupaktosera abiatzen da mandatari gisa. Orduan, Efesoko militar bat, Pirgopolinizes, Pleusiklesen neska-laguna den Filokomasiaren etxean sartzen da, eta indarrez eramaten du Efesora. Pleusiklesen esklaboa, Palestrion, horretaz ohartzen denean, bere ugazabaren bila itsasoratzen da gertatutakoaren berri emateko, baina pirata batzuek harrapatzen dute, eta, hain zuzen ere, Efesoko militarren eskuetan jartzen dute opari gisa. Handik Pleusikles ugazaba ohiari idazten dio, zeina Efesora abiatzen den

neska-lagunaren bila. Pleusikles han dagoen bitartean, bere aitaren lagun batek, Periplektomeno agureak, etxean hartzen du, militarrenaren albo-alboan hain zuzen. Palestrionek bi etheen arteko horman igarobide bat zulatzen du, maitaleak elkartu daitezten inor konturatu gabe. Igarobideak, ordea, arazoak ekarriko ditu, Filokomasiaren zaindariak, Eszeledrok, maitaleak musuka harrapatzen dituelako bizilagunaren etxean. Baina Palestrioni ideia bat otutzen zaio: musuka ari zen neska Filokomasiaren ahizpa bikia zela sinetsaraziko diote, esanez Atenastik etorri zela amarekin. Hurrengo biktima militarra izango da, emakume batek berarekin ezkondu nahi duela esaten diote-eta. Militarrek gezurra sinesten du eta Filokomasia uzten du. Ondoren, Periplektomenoren etxera joaten da, ustez bere maitale berria izango denaren bila. Bertan, ordea, agurea eta esklaboak aurkituko ditu armatuta, eta adulterioagatik izateagatik zigortuko dute. Filokomasia, Pleusikles eta Palestrion, berriz, Atenasera bueltatuko dira.

Obraren hasieran Pirgopolinizes eta Artotrogo esklaboa aurkezten zaizkigu. Azken hori ez da gehiago azalduko obran zehar, baina militarren izaera bikain islatzen laguntzen du, haren harropuzkeria agerian uzten baitu. Jarraian, bigarren ekitaldiaren hasieran, Palestrionek hitzaurre modukoa egiten du, hau da, publikoari obraren argumentua azaltzen dio. Hurrengo agerraldian Periplektomeno eta Palestrion agertzen dira, militarra nola engainatu asmatzen. Ondoren, Palestrionek eta Filokomasiak plana martxan jartzen dute. Hirugarren ekitaldian Pleusikles agertzen da. Pirgopolinizes militarra, berriz, ez da laugarren ekitaldira arte agertuko.

Komediako pertsonaia tipiko eta topikoak bikain irudikatzen ditu Plautok. Pirgopolinizes militar harropuzaren irudia dugu: denen barregarri da eta zigorra jasotzen du. Pleusikles gazte ederra da, maitemindua. Emakumearen irudia, berriz, Filokomasia da, gazte atenastarrak maiteminduta dagoena eta lan bikaina egingo duena bi ahizpen rola egiten. Palestrion esklabo fidelaren irudia da; azkarra, beti prest egongo da ugazaba laguntzeko; arazoak konponduko ditu, eta, kasu honetan, Filokomasia askatzeko konplota asmatuko du. Argi dago, *Bacchides* obrako Krisaloren edo *Mostelleriako* Trainonen baliokide dela. Periplektomeno agure alai, ulerkor eta jakintsuaren irudia da, laguntzeko beti prest dagoena. Badira beste pertsonaia batzuk ere: Eszeledro, militarren esklaboa; Lurzion, militarren beste esklabo bat; Akroteleutia, agurearen babespekoa; Milfidipa, Akroteleutiaren neskame esklaboa; Periplektomenoren esklabo gaztea; Karion, agurearen sukaldaria eta esklabo borrareroa. Aktoreak gizonezkoak izaten ziren, eta pertsonaiak bereizteko ez zituzten maskarak

erabiltzen, ileordeak baizik. Horrez gain, *pallium* izeneko mantu greziarrak janzen zituzten. Gaur egun ere oraindik posible izaten da obra hau antzokietan ikustea.

2. Itzulpen-prozesua

Plautok bere obra latinez idatzi bazuen ere, ni itzulpenez baliatu naiz obra euskaratzeko, ez dut-eta nahi adina maila latinetik itzulpen on bat egiteko. Hala ere, jatorrizko testua beti izan dut ondoan. Zubi-testu ugari erabili ditut: ingelesezko Henry Thomas Ridleyrena (Ridley, 1912), Paul Nixonena (Nixon, 1916) eta Wolfgang de Melorena (de Melo, 2011), frantsesezko Alfred Ernoutena (Ernout, 1932) eta gaztelaniazko José Román Bravorena (Bravo, 1995), Manuel Mañasena (Mañas, 2003), José Ignacio Ciruelorena (Ciruelo, 1975) eta Mercedes González-Habarena (González-Haba, 1996). Bereziki azken bi horiek erabili ditut oinarriztat, Ciruelorena (1975) argitalpen elebiduna delako eta jatorrizko testuari gehien gerturatzen zaion itzulpena delako, eta González-Habarena (1996) itzulpen nahiko askea delako. Era horretan, bi ikuspegi ezberdin edukitzeko aukera izan dut; batak latinezko testuak zehatz-mehatz esaten zuena ulertzen lagundu dit, besteak, berriz, edukiaren esanahia hobeto ulertzen. Gainontzeko testuak gauza puntualak kontsultatzeko erabili ditut, hots, ideia berdin bat itzultzeko modu ezberdinak ikusteko, obra hobeto ulertzeko eta oin-oharrak begiratzeko.

Itzulpen ezberdinekin lan egitea aberasgarria iruditzen zait, ikuspegi ezberdinak jaso daitezke-eta. Oro har, zubi-testutik egindako itzulpenek jatorrizko testutik egindakoak baino gutxiago balio dutela pentsatzeko joera dago. Ideia hori adierazten du *Millenniumen* liburuak serbierara itzuli dituen Zorica Mančić irakasleak:

Zeharbidezko itzulpena (itzulpen baten itzulpena) halako tabu bat da itzulpengintzaren teorian zein praktikan, nahiz eta kasu askotan “hizkuntza txikiak” eta “literatura txikiak” deitutakoen sorkuntzazko obra ia guztiak ezin diren beste hizkuntzetako irakurleen eskuera jarri, horrela ez bada. Itzulpenaren itzulpena balio gutxiagokoa bezala ikusia izan da beti, jatorrizkotik egindako itzulpenaren kopia zurbil bat bezala. Hala ere, batetik, badaude zeharbidezko itzulpenak oso handiak (Vinaverovihek itzulitako Andersen en maitagarrien ipuinak, esaterako) eta, bestetik, zeharbidezko itzulpen batean egiten diren okerrak zuzeneko edozein itzulpenetan egin daitezke, inondik ere. (Mančić, 2009; *apud* Zabala, 2013: 126)

Pasartean aipatzen den moduan, zeharbidezko itzulpenek mesfidantza sortzen duten arren, badaude oso onak direnak. Gainera, akatsak zuzeneko nahiz zeharbidezko itzulpenean egin daitezke. Jakak eta Marin-Lacartak (Jaka eta Marin-Lacarta, 2014) dioten moduan, zeharbidezko itzulpena garai eta munduko txoko guztietan erabili izan da, baina ez zaio eman merezi duen arreta itzulpengintzaren arloan. Hala ere, itzultzeko modu oso garrantzitsua da, literatura guztietara iristeko aukera ematen du-eta, bereziki hizkuntza txikien kasuetan. Karlos Zabalak haren alde egiten du:

Zalantzak zalantza, eta kritikak kritika, zeharbidezko itzulpena hizkuntza guztietan eta garai guztietan egin da, eta zabalkunde kulturalaren zati garrantzizkoa bete du lurralde askotan. (Zabala, 2013: 128)

Literaturak aberasteaz gain, zubi-hizkuntzak eta zubi-testuak guztiz baliagarriak izan daitezke obraren edukia ondo ulertzeko eta adierazpen modu ezberdinez ikasteko. Lan honetarako, zazpi zubi-testu erabili ditut, horietako bi oinarritzat, eta jatorrizko testua ondoan izan dut uneoro kontsultatzeko; horien bidez itzulpen on bat egin daitekeela erakutsi nahi izan dut lan honetan.

Obraren luzera dela eta, Gidor Bilbao irakasleak Plautoren lana bitan zatitu du: nik lehenengo atala itzuli dut, hau da, hasieratik 669. bertso-lerrora arte. Bigarren zatia, 670 bertso-lerrotik amaierara artekoa, Paula García ikaskideak itzuli du bere Gradu Amaierako Lanerako. Horren ondorioz, itzulpenaren inguruan zenbait gauza bien artean negoziatu behar izan ditugu lan osoan koherentzia mantentzearen. Esaterako, beharrezkoa zen pertsonaien izenak berdin itzultzea. Aurrerago aipatuko dudan bezala, Euskaltzaindiaren arau batean (Euskaltzaindia, 1997) oinarritu gara horiek adosteko. Erregistroari dagokionez, biok ziur geunden Plautoren lagunarteko hizkuntza bereizgarria mantentzeko pertsonaia batzuek hika egin behar zutela, baina, jakina, ez denek. Adostasun batera iristeko, bakoitzak taula bat egin du bere atalean agertzen diren pertsonaiekin eta elkarrizketa guztietako solaskideekin, eta bertan zehaztu dugu nork egiten dion nori hika, Xabier Alberdiren hitanoari buruzko artikulua bat (Alberdi, 2003) oinarritzat hartuz. Ondoren, bi taulak konparatu ditugu, eta goitik behera adostu ditugu. Lexiko aldetik ere, zenbait termino bion artean adostu behar izan ditugu, esaterako, *miles* itzultzeko «militar» erabiltzea, eta ez «soldadu». Horiez gain, beste zenbait gauza puntuali ere garrantzia eman diogu, esaterako, akotazioak nola itzuli. Baina horiek guztiak aurrerago aipatuko ditut, aurretik garrantzitsua da-eta itzulpenaren hartzailea

zehaztea. Lanaren inguruko hautuak egiteko garaian beti izan dut gogoan nor den irakurlea, eta horretarako ustezko enkargu bat asmatu dut neure burua eginkizun horretara lotzeko:

«Batxilergoko azken urteko ikasleek *Miles gloriosus* irakurtzen dute latineko eskolarako, eta hari buruzko galdera bati erantzun behar diote selektibitatean. Euskaraz ikasten duten ikasleek obra euskaraz irakurtzeko aukera emateko xedearekin, testua itzultzea eta ohar argigarri hornitzea eskatzen dizugu.»

Hortaz, hartzaileak gehienbat batxilergoko ikasleak izango direnez, hau da, ez dutenez zertan gaian adituak izan behar, oin-oharrez baliatu naiz ezagutu ohi ez dituzten erreferentzia kulturalak azaltzeko. Zenbaitetan, oin-oharrak zubi-testuetatik hartutako en itzulpenak dira; beste batzuetan, ordea, nik gehitutakoak. Hala ere, kontuan izan dut itzulpenak egokia izan behar duela euskaldun alfabetatu orok irakurtzeko eta are antzezteko.

Bestetik, aipatu beharra daukat jatorrizko testua bertso-lerrotan idatzita egon arren, obra prosan euskaratzea erabaki dudala; hori da, izan ere, zubi-testu gisa erabili ditudan itzulpen guztiek egin duten hautua.

3. Itzulpen-arazoak

Itzultzen hasi aurretik, González-Habaren (1996) eta Cirueloren (1975) testuen ezaugarriak erreparatu diet, itzultzeko izango nituen arazoak aurreikusi nahian. Jarraian, arazo horiei buruz eta eman didan konponbideei buruz mintzatuko naiz, askotarikoak izan dira-eta hartu beharreko erabakiak. Azalduko ditudan arazoak multzotan banatu ditut: jatorrizko testuaren irakurketa ezberdinak, pertsona-izenen itzulpena, erregistroa, lexikoa, akotazioak eta erreferentzia kulturalak.

3.1. Jatorrizko testuaren irakurketa ezberdinak

Hasieran aipatu bezala, *Miles gloriosus* K.a. 205. urte inguruan idatzi zen, eta jatorrizko latinezko testua bera ere ez da erabat ziurra. Niri itzultzea egokitu zaidan atalean zenbait bertso-lerro falta dira. Kasu horietan, nire itzulpenari oin-oharrak gehitu dizkiot edukiaren zati bat falta dela adierazteko, zubi-testuetan egin den moduan.

Bestetik, jatorrizko testuko zenbait pasartetan editoreek irakurketa desberdinak proposatu dituzte. Hona hemen adibide bat (584. bertso-lerroa):

- Cirueloren edizioan eta itzulpenean:
Nam non statis †pipulo impio† merui mali. (lat.)
Ahora tengo merecido un buen castigo con mi desdichado lloriqueo. (gazt.)
- Ernouten edizioan eta itzulpenean:
Nam uni satis †populo impio† merui mali. (lat.)
J'ai déjà mérité un châtement suffisant par ce scandale horrible. (fr.)

Cirueloren (1975) eta Ernouten (1932) bertasioak konparatzen baditugu, edukia ez datorrela bat ohartuko gara. Lehenengoak *non statis* proposatzen du, bigarrenak, berriz, *uni satis*. Hori editoreek eginiko irakurketa ezberdinen ondorio izan liteke; baliteke ere, editore bakoitzak eskuizkribu ezberdina erabili izana. Hala eta guztiz ere, argi dago jatorrizko testuaren irakurketa horrek itzulpena baldintzatuko duela.

Azkenik, bertso-lerroaren zati bat gurutze artean dagoela ikus dezakegu. Horrek esan nahi du pasarte problematikoa dela, eta, ondorioz, itzulpena ere ez dela ziurra. Ciruelok (1975) zati hori *pipulo impio* bezala interpretatu du; Ernoutek (1932), berriz, *populo impio* bezala. Hori dela eta, itzulpenaren edukia bertasio batetik bestera aldatu egiten da. Ernoutek bere bertasioan (1932) horren inguruko oin-har bat gehitzea erabakitzen du, eta testua ez dela ziurra adierazi du: «Texte peu sûr. Certains lisent Iam nunc ... pipulo qu'il faut traduire *J'ai déjà mérité un châtement suffisant par ce scandale horrible.*» (Ernout, 1932: 21).

Kasu horietan, irakurleari arazo gutxien sortuko dion bertasioa erabiltzea erabaki dut beti, hau da, ulergarriena eta itzultzeko arazo gutxien sortzen dituenena. Horrez gain, istorioaren testuinguruari arreta berezia jarri diot bertasio egokiena aukeratu nahian. Esaterako, eman berri dudana adibidea itzultzeko González-Habaren testua (1996) hautatu dut, ulerterraza eta argia iruditzen zaidalako: «[...] he merecido un castigo que valdría para un pueblo entero de traidores.» (González-Haba, 1996: 18). Eta honela itzuli dut: «Zigor ederra merezi diat, herri traidore oso batek mereziko lukeenaren parekoa.» (Utrilla, 2018: 44).

3.2. Pertsona-izenen itzulpena

Itzultzen hasi aurretik pertsonaien izenak nola itzuli erabaki behar zen. Latinezko testuan agertzen diren pertsona-izenak zubi-testuetan agertzen direnekin konparatzen baditugu, ezberdintasun gutxi ikusiko ditugu. Horiek euskaratzeko, latindar eta greziar

pertsona-izen klasikoaren itzulpenaren inguruko araua (Euskaltzaindia, 1997) erabili dut, pertsona-izen latindarrak euskal grafiara egokituta itzuli behar direla dioena. Euskaltzaindiaren 82. arauak (Euskaltzaindia, 2015) ideia hori berresten du:

Hamazazpi urte igaro dira arauaren lehen bertsio hura plazaratu zenetik, eta, latin eta greziar pertsona-izen klasikoaren arauan bezala, gaur egun euskara batuan argitaratzen diren lanetan (eskola-liburuak, entziklopediak, hiztegiak, literatura, komunikabideak...), guztiz hedatuta dago arauaren emandako ereduak. (Euskaltzaindia, 2015: 1)

Pertsona-izenak arau horretan oinarrituz itzuli ditudan arren, esan beharra daukat *Philocomasium* pertsona-izenarekin zertxobait ezberdin jokatu dudala. Euskaltzaindiaren arauaren (1997) arabera, *-um* amaiera duten izenak *-o* amaierarekin itzuli ohi dira. Ingeleseztik *Philocomasium* eta González-Habaren itzulpenean (1996) *Filocomasio* itzuli da. Gaztelaniazko gainontzeko testuetan, ordea, *Filocomasia* erabili da, zeinak pertsonaiaren generoa iradokitzen duen; frantsesez ere berdin jokatu da (*Philocomasie*). Nik azken itzulpen horien bide beretik jo dut, euskarak generoaren marka ez duen arren, euskarazko irakurleari ere *-o* bukaerak pertsonaia gizonetzkoa eta *-a* bukaerak pertsonaia emakumezkoa dela iradokiko diolakoan. Francisco Gonzálezek azaltzen du latinezko *-um* bukaerako femenino horien jatorria grekozko txikigarrietan dagoela:

Aún dentro del inanimado con referente animado acostumbran igualmente a enumerarse las latinizaciones de los nombres propios de mujeres, efectuadas en la comedia, del tipo *hanc Philocomasium* (PLAVT.Mil.1296), *Adelphasium meam* (PLAVT.Poen.419), que provienen de diminutivos neutros griegos, pero para quienes la única concordancia que admite el latín es de género femenino por su referencia a mujeres. (González, 1995: 66).

Pasartean aipatutako pertsona-izenak *-um* amaiera dute, baina haiekin erabiltzen diren erakuslea (*hanc*) eta adjektiboa (*meam*) femeninoan deklinatuta agertzen direnez, izeneko genero femeninoa dutela ikus daiteke.

3.3. Erregistroa

Obraren ezaugarri garrantzitsuenetakoa bat da pertsonaien hizkeren erregistroa. Pertsonaien arteko elkarrizketak lagunartekoak dira, eta hizkera hori Plautoren obraren bereizgarri dela esan genezake; beraz, ezinbestekoa iruditu zait ezaugarri hori mantentzea. Lagunarteko erregistro hori ahalik eta hoberen islatzeko eta euskarak horretarako dituen baliabideak kontuan izanik, besteak beste, hitanoa erabiltzea erabaki

dugu Paula García eta biok. Baina horretan hasi aurretik, zenbait ezaugarri erreparatu behar izan diogu, pertsonai guztiek ez baitute hika egingo. Hautaketa hori egiteko, Xabier Alberdiren artikulua batean oinarritu gara. Bertan hitanoaren erabilera baldintzatzen duten hurrengo oinarritzko aldagai soziolinguistikoak aipatzen dira:

1. Gaia (hizketagaia).
2. Hizketaldiaren testuingurua.
3. Adina.
4. Belaunaldia.
5. Sexua.
6. Senidetasun-maila
7. Dialektoa
8. Talde-kidetasuna.
9. Aginpidea (legal edo politikoa), eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea.
10. Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkarrenganako ezinikusia, e.a.). (Alberdi, 1993: 434).

Hamar aldagai horien zerrendari beste bat gehitu diogu: maila soziala. Izan ere, maila sozial ezberdinetako pertsonaiak aurkituko ditugu obran, eta hikaren erabilera baldintzatu dezakeen ezaugarri garrantzitsu bat dela iruditzen zait. Aipatutako guztiak kontuan izanik, taula batzuk osatu ditut, non nire ataleko pertsonaiak obran agertzen diren ordenan jaso ditudan, eta hika egiten duten ala ez adierazi, hautuaren arrazoiarekin batera.

Taula 1: PIRGOPOLINIZES, militarra

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Pirgopolinizes	Artotrogo	Bai	Aginpidea: Pirgopolinizes Artotrogoren ugazaba da, eta hikak hierarkia hori adierazten du, hau da, Pirgopolinizes dela agintzen duena.

Taula 2: ARTOTROGO, Pirgopolinizesen parasitua

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Artotrogo	Pirgopolinizes	Ez	Aginpidea: Artotrogo Pirgopolinizesen esklaboa da, beraz, ez dio hika egingo. Izan ere, agintzen duena Pirgopolinizes da.

Taula 3: PALESTRION, Pleusiklesen eta militarren esklaboa

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Palestrion	Publikoa	Ez	Testuingurua:

			Ezezagun ugariren aurrean hitz egiten du. Xabier Alberdik horrela dio: «Ez da berdin bakar samar egotea edo jende aurrean egotea. [...] Ildo beretik, jende aurrean ere, ez da berdin lagun artean hitz egitea edo jende arrotzaren aurrean.» (Alberdi, 1993: 435).
Palestrion	Periplektomeno	Ez	Adina eta maila soziala: Periplektomeno nagusiagoa da, beraz, Palestrionek ez lioke hika egin beharko. Gainera, Palestrion maila sozial baxuagokoa da, eta agurearen aginduak betetzen ditu.
Palestrion	Eszeledro	Bai	Maila soziala: Biak dira maila sozial baxukoak, esklaboak. Beraz, bien artean hika erabiltzeak hierarkian leku bera hartzen dutela erakusten du.
Palestrion	Filokomasia	Ez	Sexua: Praktikan gizonak emakumeari ez dio hika hitz egiten. Xabier Alberdik honako hau adierazten du: «Asimetria gertatuz gero, aiseago gertatzen da emakumearen alde (hots, emakumeak hika gizonari eta beronek zuka itzuli emakumeari).» (Alberdi, 1993: 436).
Palestrion	Pleusikles	Ez	Aginpidea: Palestrion Pleusiklesen esklabo ohia da.

Taula 4: PERIPLEKTOMENO, agurea, militarren bizilaguna

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Periplektomeno	Palestrion	Bai	Adina eta maila soziala: Periplektomeno nagusiagoa da eta maila sozial altuagokoa. Palestrion, berriz, esklabo bat da.
Periplektomeno	Eszeledro	Bai	Adina eta maila soziala: Periplektomeno nagusiagoa eta maila-sozial altuagokoa da. Eszeledro, ordea, esklabo bat da.
Periplektomeno	Pleusikles	Ez	Hizketaldiaren testuingurua: Periplektomeno nagusiagoa eta maila sozial altukoa da, baina Pleusikles ere maila onekoa da, eta nire ataleko bertso-lerroetan (ik. 613-670 b.) Periplektomeno ez zaio Pleusiklesi zuzentzen. Biek hitz egiten dute baina

			batak ez dio besteari zuzenean erantzuten.
--	--	--	--

Taula 5: ESZELEDRO, Pirgopolinizesen esklaboa

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Eszeledro	Palestrion	Bai	Aginpidea: Biak esklaboak dira, maila sozial berekoak.
Eszeledro	Filokomasia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika hitz egiten.
Eszeledro	Periplektomeno	Ez	Adina eta maila soziala: Periplektomeno nagusiagoa da eta maila sozial altuagokoa. Eszeledro, berriz, esklabo bat da.
Eszeledro	Eszeledro	Bai	Bakarrizketa: Ez da aipatutako aldagaien listan agertzen, baina artikulua berean Alberdik hurrengo hau aipatzen du bakarrizketari buruz: «Beste kontu jakingarri bat bakarrizketarena dugu. Izan ere, teorian hitanoaren [...] probabilitaterik handiena nork bere buruari hitz egiterakoan eta anaia bikien artean gertatzen omen da». (Alberdi, 1993: 439).

Taula 6: FILOKOMASIA, Pleusiklesen neska-lagun gaztea

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoia
Filokomasia	Palestrion	Bai	Sexua eta maila sozialaren parekotasuna: II. ekitaldiko laugarren agerraldian (353-357 b.) Filokomasia Palestrioni zuzentzen zaio, eta ez dago inor gehiago inguruan, beraz, emakumeak bere maila sozial berekoa den gizonari hika egingo dio, Alberdik dioten moduan: «Zenbait herritan [...] ohituraren aurka doa gizonezko batek emakumezko bati hika hitz egitea; emakumeek, aldiz, “askatasuna” dute gizonezkoei hala mintzatzeko. [...] Galduta dago emakumezkoei hika hitz egiteko ohitura, [...] hala ere zilegi da emakumezkoek gizonezkoei hika egitea.» (Alberdi, 1993: 436).
Filokomasia	Eszeledro	Bai	Sexua eta maila sozialaren

			parekotasuna: Emakumeak bere maila sozial berekoa den gizonari hika hitz egingo dio, aurreko adibidean aipatu bezala.
Filokomasia (Justaren rolean, II.V agerraldian)	Eszeledro	Ez	Testuingurua: Filokomasiak Justaren rola egin behar du, beraz, Eszeledrori ezezagun bat balitz bezala hitz egin behar dio.
Filokomasia (Justaren rolean, II.V agerraldian)	Palestrion	Ez	Testuingurua: Eszeledro haien aurrean dagoenez, ezezagun baten moduan tratatu behar du Filokomasiak Palestrion.

Taula 7: PLEUSIKLES, atenastar gaztea

Nork	Nori	Hitanoa	Arrazoa
Pleusikles	Palestrion	Bai	Aginpidea: Palestrion Pleusiklesen esklabo ohia da.
Pleusikles	Periplektomeno	Ez	Adina: Biak maila sozial onekoak izan arren, Periplektomeno nagusiagoa da.

Pertsonaien arteko hizkera finkatu ondoren, beste arazo bat sortu zait. Izan ere, ezer gutxi dago araututa aditz alokutiboaren erabileraren inguruan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait Xabier Alberdik eginiko iruzkin bat aipatzea:

Aditz alokutiboak badu sintaxizko urrezko arau bat, soilik mendekoak ez diren perpaus adierazgarrietan erabiltzen da literatura-tradizio landuan. [...] Galderazko perpausetan alokutiboa erabiltzeko joera dago euskalki gehienetan, eguzki aldekoetan izan ezik (behe-nafarreran eta zubereran). Gainerakoan, salbuespenak salbuespen, bete egiten da sintaxizko arau edo debekua, mendeko perpausetan ez baita adizkera alokutiborik sartzen. (Alberdi, 1996: 294-295)

Pasarte horretan azaltzen den moduan jokatu dut, hau da, ez dut hitanoa erabili menpeko perpausetan; Euskaltzaindiak ere horrela jokatu behar dela dio:

Hau da, forma alokutiboak ezin dira edozein inguru sintaktikotan erabili. Perpaus txertatuetan, esaterako, debeku argiak daude. [...] Beraz, nahiz perpaus nagusian alokutiboa aukeratu duen hiztunak (diat), txertatuan forma ez-markatua aukeratu beharra da (dela). Horrexegatik subjuntibo deitu ohi diren adizkietan (dadin, dadila,

dezan, dezala), ez du alokutiboak lekurik adizki hauek definizioz mendeko perpausetan bakarrik erabiltzen baitira. (Euskaltzaindia, 2002: 406)

Ritxi Lizartzak ere hausnartu du aditz alokutiboaren erabilerari buruz, eta ondorio berdinerira iritsi da:

Kasuan kasuko aipamenen harira etorritz, gaur egun arte euskalki guztietan nagusi izan den joeraren arabera, testuinguruari dagokionez, oso esparru mugatua du hitanoak: adierazpen-perpaus nagusia, baiezkoa edo ezezkoa [...]. (Lizartza, 2009: 84)

Hortaz, bide bera hartu dut itzulpena egiteko, hots, perpaus nagusietan bakarrik erabili dut hitano alokutiboa. Bestetik, Lizartzaren (2009) arabera, alokutiboak ez du tokirik ez harridurazko perpausetan ez galderazkoetan. Hori dela eta, nik ere ez dut hitanoa erabili kasu horietan. Azkenik, Euskaltzaindiaren 14. arauan (Euskaltzaindia, 1994) oinarritu naiz aditz alokutibozko aditz-forma egokiak hautatzeko.

3.4. Lexikoa

Nire helburu nagusia komedia ahalik eta egokien eta zehatzen itzultzea izan denez, lexikoak ere zehatza behar zuen izan. Zenbait kasutan, ordea, zaila egin zait erdaretako hitzaren euskarako baliokidea aurkitzea. Horren adibide da lehenengo argumentuan bertan agertzen zaigun *meretrix* gazt. ‘cortesana’. Testuinguruak argi uzten du ezin dela «gortesau» edo «kortesano» bezala itzuli (hiztegiek gaztelaniazko *cortesano*, -arentzat ematen dituzten ordainak), baizik eta «prostituta» edo beste baliokideren baten bidez. Hiztegi elebidunetara jotzen badugu, hainbat aukerarekin egingo dugu topo. Elhuyarren (Elhuyar Fundazioa, 2018) honako hitz hauek aurkituko ditugu gaztelaniazko *meretrix* sarreran: «bordion», «puta», «urdanga», «emagaldur» eta «prostituta». Horien artean aukeraketa bat egiteko funtsean bi gauza izan ditut kontuan: batetik, erabilera, eta, bestetik, konnotazioak.

Lehenik eta behin, erabilera gutxiko hitzak baztertu ditut, testu “arruntago” baten alde. Horrenbestez, baztertu dudan lehen hitza *bordion* izan da, Egungo Testuen Corpora (Sarasola; Salaburu; Landa, 2016) eta Ereduzko Prosa Gaur (Sarasola; Salaburu; Landa; Zabaleta, 2009) kontsultatu ondoren, corpus horietako autore batek ere ez duela erabili ikusi dut-eta. Gainontzeko hitzak, ordea, aski ezagunagoak dira; beraz, zer testuingurutan erabili diren edo zein konnotazio dituzten aztertu dut. *Put*a entzuten

dugunean, ez da beharrezkoa bilaketa handirik egitea irain moduan erabiltzen dela jakiteko. *Berriako* artikuluko batean horren adibide bat ikus dezakegu: «Arau magikooi esker, bortxatzaileek lasai egin dezakete lo: emakume bortxatua, funtsean, *puta hutsa zen*» (Diez de Ultzurrun eta Morales, 2017). Birao moduan ere erabiltzen da: «Zertarako ikasi *hizkuntza puta hori?*» (Aranguren, 2014). Hori dela eta, ez zait itzulpeneko hitz egokia iruditu. *Urdanga* hitza, berriz, «urde»-tik dator, hau da, «zerri», eta Orotariko Euskal Hiztegiak (Euskaltzaindia, 2017) honako hau dio hitzari buruz: «(*usado tbn. como insulto*)». Beraz, *puta* hitzarekin egin dudana moduan, baztertu egin dut. Hortaz, bi aukeren artean zalantzan ibili naiz: «emagaldu» edo «prostituta».

Plautok aipatzen dituen emakume hauek luxuzko prostitutak dira; Carmen Herrerosek eta M^a Carmen Santapauk honela deskribatzen dituzte: «Eran prostitutas de lujo, mujeres bellas, elegantes, refinadas y complacientes» (Herrerros eta Santapau, 2005; *apud* Montalbán, 2016: 161). Orotariko Euskal Hiztegiko (2017) adibide batek erakusten digun bezala, «emagaldu» birao moduan ere erabiltzen da: «Ez izen onekoak, ostera, *emagaldu batzuk baiño*» (Euskaltzaindia, 2017). Hori kontuan izanik, nire ikaskide Paulak eta biok erabaki dugu latinezko *meretrix* (gaztelaniazko *cortesana*) itzultzeko hitz egokiena «prostituta» dela.

Interesgarria da Plautok Filokomasia aipatzeko *meretrix*-ez gain, *concupina* eta *amica* ere erabiltzen dituela. Obra arretaz irakurtzen badugu, azken bi hitz horien erabilera ausazkoa ez dela ohartuko gara: *concupina* Pirgopolinizesekin duen erlazioari erreferentzia egiteko erabiltzen du askotan; *amica*, aldiz, Pleusiklesekin duenari erreferentzia egiteko. Carlos Amunátegui hori Plautoren obra ezberdinetan geratzen dela ikusi du:

Lo común es estimar que *amica* y *concupina* son sinónimos durante el siglo II a.C., pero, de conformidad al autor, existen 23 casos en que la palabra *concupina* o *concupinato* son usados a lo largo de la comedia plautina, siendo *amica* la voz absolutamente preponderante para referirse a las amantes. (Amunategui, 2006: 359)

Ikusirik Plautok bi hitzak apropos erabili dituela, nik ere termino ezberdinak erabiltzea erabaki dut. *Concupina* itzultzeko «ohaide» hautatu dut; ordea, *amica* itzultzeko «neska-lagun» erabili dut, maitaleen arteko erlazioa nolakoa den iradokitzen duelako. Ruben Montalbánek dioen moduan, Christopher Faraonek eta Laura McClurek azaltzen dutena Filokomasia eta Pleusiklesen arteko erlazioaren isla izan daiteke:

La relación de cortesanas y clientes podía ser bastante larga y permanente en algunos casos, por ello se las denominaba *amicae* (“el que ama, amigo, amistoso”) o *delicatae* (“criatura mimada, atrayente”) (Faraone y McClure 2006: 226-227). Estos apelativos positivos trataban de recordar la relación diferente que existía con ellas. (Faraone eta McClure, 2006; *apud* Montalbán, 2006: 161)

Hitzen hautaketa horrek pertsonaien arteko erlazioa adierazten duela ondoriozta dezakegu, hau da, Filokomasia Pirgopolinizesen etxean egon arren eta haren ohaidea izan arren, Pleusikles maite duela. «Prostituta» hitza hauturik egokiena izan arren irakurleak gaur egungo prostitutaren irudiarekin erlaziona dezakeela kontuan izanik, oin-ohar argigarri bat gehitu dut nire itzulpenean, garrantzitsua da-eta obra ondo ulertzeko Antzinako Erromako prostituta horiek zuten estatusaren berri ematea.

Beste hainbeste zalantza izan ditut *erus* (gzt. *amo*) itzultzeko. Hiru aukera nituen: «ugazaba», «nagusi» eta «jabe». Lehen begi-kolpean hiruek balio dutela esan dezakegu, baina aipatu dudana bezala, itzulpenean zehaztasunez jokatu nahi izan dut. Horregatik, hiruen esanahia bilatu dut Orotariko Euskal Hiztegian (2017). «Jabe» testuinguru ezberdinetan erabiltzen dela ikus dezakegu: norbaiten jabe izan zaitezke, baina baita zerbaiten jabe ere. Horrez gain, Jainkoari erreferentzia egiteko erabiltzen da. «Nagusi»-k, berriz, adiera ezberdinak ditu: «amo, dueño, señor, patron, superior, jefe», «vencedor, ganador, el primero, el mejor» eta «anciano, persona de edad avanzada» (Euskaltzaindia, 2017) besteak beste. «Ugazaba», ordea, termino zehatzagoa da; Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera (2017), «Amo, dueño, patrón. "Amo", "ama de criados"» esan nahi du. Beraz, bai Paulari bai niri, «ugazaba» hauturik egokiena iruditu zaigu.

Nire ikaskidearekin komentatu dudana beste puntu bat interjekzioena izan da. Obraren ugari azaltzen dira, baina era askotara itzuli dira. Jatorrizko testuan garaiko pertsona mitologikoen izenak erabiltzen dira, esaterako, *edepol* Cirueloren (1975), Bravoren (1995) eta Mañasen (2003) testuetan *por Pólux* bezala itzuli da. González-Habak (1996), ordea, ez ditu izen bereziak erabiltzen, beste interjekzio batzuk baizik, esaterako, *maldición*. Hala ere, askotan omititu egiten ditu. Horren aurrean, Cirueloren (1975) eta gainontzeko gaztelaniako testuen bide bera hartzea erabaki dut, pertsonaia mitologikoen izenek obraren garaian eta testuinguruan kokatzen laguntzen dutela iruditzen zaidalako eta horiek ezabatzeak obraren ezaugarri garrantzitsu bat ezabatzea suposatuko zuelako. Erabaki hori hartuta, jatorrizko interjekzioak itzultzeko bide bat

aurkitu behar izan dut. Lehenik otu zaidan ideia, hitzez hitzeko itzulpena egitea izan da: «Poluxengatik» edo «Herkulesengatik» idaztea. Badago, ordea, oso zabaldua dagoen interjekzio bat: «alajainkoa». Orotariko Euskal Hiztegian (2017) begiraten badugu, «ala Jainkoa» erabiltzen den moduan, «ala Artemi» eta «ala Tzeu» erabili direla ikusiko dugu. Ondorioz, nik berdin jokatu dut obran agertzen diren izenekin, eta nire ikaskidearekin adostu ondoren, «ala Polux» eta «ala Herkules» bezalako interjekzioak erabiltzea erabaki dut.

Maiz agertzen diren hitzez gain, zenbait termino puntualek ere buruhausteak ekarri dizkirate. Obraren hasieran akrostiko bat dugu, hots, I. argumentuaren esaldien lehen letrak bertikalez irakurtzen baditugu, obraren titulua agertuko zaigu. Itzulpenetan ez da joko hori mantendu; niri ordea, polita iruditu zait mantentzea. Horretarako, Cirueloren (1975) itzulpenean oinarritu naiz, eta haren edukia egokitu dut akrostiko bat sortzeko. Argumentu horretako zailtasun nagusia *r*- letraz hasten zen hitz bat bilatzea izan da, euskarak halako gutxi dauzka-eta. Zorionez, «rol» hitza topatu dut, zeinak Filokomasiak bi neskaren papera egingo duela adierazteko balio izan didan.

Lehen ekitaldiari dagokionez, bereziki hitz batek sortu dit zalantza. Cirueloren itzulpenak (1975) honako hau dio: «¿A qué voy a decirte lo que saben todos los mortales [...]?» (Ciruelo, 1975: 85). González-Habak (1996) esaldi bera honela itzuli du: «¿A qué voy a venirte yo a contar lo que todo el mundo sabe [...]?» (González-Haba, 1996: 6). Latinezko testuak *mortalis* erabiltzen du, beraz, lehenengo itzulpena zehatzagoa dela esan genezake. Gainera, bigarren aukera gaur egungo hizkeratik askoz ere gertuago dago eta, ondorioz, obraren garaitik urrunago. Jatorrizko testuaren xarma mantendu nahian, *mortalisen* baliokide bat bilatzen saiatu naiz. Nire lehen aukera «gizaseme» izan da, baina «seme» horrek gizonezkoak iradokitzen ditu. Horregatik, nire azken aukera «gizakume» erabiltzea izan da.

Lexikoarekin amaitzeko, beste hitz bati buruz mintzatzea gustatuko litzaidake. Testuetan aurrera jarraitu ahala, beste esaldi honekin topatzen gara: *Quaen me ambae obsecrauerint ut te hodie quasi pompam illa praeterducerem? (Miles gloriosus 66-67)* «¿Creerás que ambas me suplicaron que te llevase hoy por allí, como una procesión?» (Ciruelo, 1975: 85). *Procesión* itzultzeko hiztegi elebidunetan ematen zaigun aukera «prozesio» da. Hitz horrek, Orotariko Euskal Hiztegiak adierazten duen moduan, erlijioarekin du lotura: «Procesión. v. **elizbira**, ELIZ-INGURU. **Abade guztiak daode*

prozisioan (Cantar de Breña).» (Euskaltzaindia, 2017); Egungo Testuen Corpusean (2016) 2.384 sarrera ditu, baina berriz ere testuinguru erlijiosoetan erabiltzen dela ikus dezakegu: «Elizaren inguruan prozesioa egin ondoren, barrura sartuko dira guztiak.». Obran, aldiz, prozesioak ez du zerikusirik ezer erlijiosoarekin. Hortaz, «prozesio» erabili ordez, «kabalkada» erabiltzea egokiagoa iruditu zait, militarra denen aurrean erakustearen ideia jasotzen duelako. Euskaltzaindiaren Hiztegiak (2015) horrela definitzen du: «z. Ipar. Jaialdi batean ilaran joaten diren zaldizkoen, gurdi apainduen, musika taldeen eta kidekoen multzoa.» (Euskaltzaindia, 2015).

Orotariko Euskal Hiztegiak (2017) jotzen badugu, hitzaren erabilerari erreparatu diezaiogez:

Cabalgata. "Cavalcade, marche de gens à cheval avec ordre, pompe et cérémonie" Chaho. **Arratsaldean, kabalkada emana izanen da. Bere zaldizko bringo, jandarme soster, kapitain fier [...].* Herr 28-7-1960, 3. *Kabalkada batez, Baigorriko gaztek galdegin zioten jin zadin Baigorriat bertsu egiterat.* Lf *ELit* 190. *Mila berrehun bat izan ziren kabalkadari so.* Herr 12-9-1996, 1. *Aratsaldeko lauak eta erditan, kabalkada, toberak eta mutxikoak.* Ib. 1. *Behar da jakin ere kabalkada hau egin zela hastapenean herritarrendako.* Herr 10-10-1996, 8. *Irailaren 15an, Lekorneko gazteek (bai gazteek) proposatu dituzte kabalkada-toberak.* Ib. 8. (Euskaltzaindia, 2017)

Adibideek adierazten dutenez, «kabalkada» ez da testuinguru erlijiosoan erabiltzen. Egungo Testuen Corpusean (2016) 614 sarrera ditu, eta bertan ere ikus daiteke hitzak ez duela erlijioarekin loturarik; hona hemen adibide bat: «Lasterraldi, argazki erakusketa, auzo bazkari, Inautetako kabalkada bat ere «batucadas»-ekin.»

3.5. Akotazioak

Obra itzultzeko garaian adostu beharreko beste puntu bat akotazioak izan dira. Logikoa denez, Paulak eta biok modu berean itzuli behar izan ditugu, obraren koherentzia mantentzeko xedearekin.

Akotazioak ezinbestekoak dira antzezlanetan aktoreak ondo antzezteko eta irakurleari oholtzan gertatzen denaren berri emateko. Nire zalantza zen akotazioetan zein aditz-forma erabili: indikatiboko orainaldia («Militarraren etxean sartzen da»), aginte-era jokatua («Militarraren etxean sar(tu) bedi»), ala agintera ez-jokatua, partizipio bidez («Militarraren etxean sartu»), nahiz aditz-oin bidez («Militarraren etxean sar»). Hori

dela eta, erantzuna euskal antzerki tradizioan bilatzea erabaki dut, pastoraletan, alegia. Ikusi dudanez, akotazioak agintera ez-jokatuan idatzi izan dira. Hona hemen adibide batzuk:

- Oray *egon* memento bat[t] tristeky eta guero *mintça* Laya. (Bilbao, 1996: 258).
- Oray *eman* beste colpu bat eta Gigantac buria *eraiky* eta *mintça* aharraussy bateky. (Bilbao, 1996: 274).
- Batailla eta Laya *eror*. Bestiac *ezcapu* eta Edipa *retira* eta Laya *mintça*. (Bilbao, 1996: 278).
- Oray Edipa hiliq *eraman* hirour aurhideq barnerat nigarrez. (Bilbao, 1996: 286)
- Oray *retira* biac lasterca eta Olimpia eta Jocasta *jalkhy* eta Jocasta *mintça*. (Bilbao, 1996: 287).
- Oray ezpata idokiric *abia* bere buriaren erhaitera eta Jocasta *lot* bessoty eta *mintça*.(Bilbao, 1996: 290).
- Antigonna eta Jocasta *passey*. Eteocla eta Creon *jalqui*. Jocasta *mintça* Eteoclary. (Bilbao, 1996: 301).

Joera hori ikusirik, nire ikaskideak eta biok ohitura hori jarraitzea erabaki dugu, hau da, akotazioetako aditzak agintera ez-jokatuan idaztea, baina ekialdeko tradizioko aditz-oinaren erabilera gurera ekarrita, partizipio bidez.

3.6. Erreferentzia kulturalak

Miles gloriosus gugandik oso urrun dagoen garai batean idatzi zela kontuan izanik, gaian aditua ez denak zailtasunak izan ohi ditu testuko pasarte batzuk ulertzeko, erreferentzia kulturalaz josia baitago. Nire itzulpenaren hartzaile nagusiak batxilergoko ikasleak direnez, beharrezkoa iruditu zait garaiko kulturaren ezaugarri diren kontzeptuei oin-oharrak gehitzea. Askotan zubi-testuek ere oin-oharrak erabiltzen dituzte, eta, kasu horietan, oin-ohar horien itzulpen edo egokitzapena egin dut. Beste batzuetan, testuek ez dakarte oin-oharrik, baina nire itzulpenean gehitzea erabaki dut, irakurlearen ulermena erraztu nahian. Azalpena behar zuten elementuak identifikatzeko batxilergoko ikaslearen lekuan jarri naiz, eta ezezagunak izan zitezkeen kontzeptuei buruz informatu naiz, gero oin-ohar egokiak idatzi ahal izateko.

Jarraian, oin-ohar bat merezi zuten erreferentzia kulturalak multzoka zerrendatu ditut:

- Garaiko pertsona ezagunak: Seleuko erregea eta Nevio poeta.
- Leku eta ibai izenak: Efeso, Naupaktos, Zilizia, Kapadozia, Atika, Akeronte eta Animula.
- Jainkoak: Marte, Neptuno, Akiles, Efesoko Diana, Venus eta Favonio.

- Hitz-jokoak: gurguriotarrak, Bunbomakides Klitomestoridisarkides, Eszitolatronia eta irakari buruzko hitz-jokoa.
- Jatorrizko testuari erreferentzia egiten diotenak: *scelus* eta *Sceledrusen* arteko hitz-jokoa eta *tali* terminoarekin eginiko hitz-jokoa.
- Ohiturak: karguen zozketa eta otoitz egitea.
- Beste elementu batzuk: prostitutaren irudia, babespekoaren irudia, palioari buruzko informazioa, etxe erromatarrei buruzko informazioa, azkura izatearen zergatia, belaunaren sinbologia eta letoiarene balioa.

Ikusten den moduan, oin-oharrak askotarikoak dira: batzuek pertsona edo lekuen inguruko datuak ematen dituzte, beste batzuek, ordea, zenbait elementuren esanahia argitzen dute edota jatorrizko testuan agertzen dena aipatzen dute. Baina denek helburu bera dute: irakurleari ulermena erraztea.

Hala ere, oin-oharrak ez ditut erreferentzia kulturalak argitzeko bakarrik erabili, lehen aipatu bezala, jatorrizko testuaren hutsuneak adierazteko ere erabili ditut-eta. Horrez gain, itzulpenari pertsonaien izenen esanahia gehitzea erabaki dut.

4. Itzulpena

MILITAR HARROPUTZA

I. ARGUMENTUA

Militar batek prostituta² bat eraman zuen indarrez Atenastik Efesora³.

Itsasoratu egin zen esklaboa, ugazabari jakinarazteko haren maitalea bahitu zutela.

Lehorreratu aurretik, ordea, pirata batzuek esklaboa harrapatu zuten,

Eta Efesoko militarren eskuetan utzi zuten opari gisa.

Sekretuan idatzi zion esklaboak ugazabari Efesora etorrazteko.

5

Gero, zuloa egin zuen bi etxeen arteko paretan, batetik bestera pasatzeko.

Lortu zuten, zuloari esker, maitaleek elkar ikustea.

Ordea, neska gaztearen zaindaria elkar besarkatzen ikusi zituen teilatutik.

² Luxuzko prostituta zen, goi-mailakoa.

³ Antzinako Asia Txikiko herria, gaur egungo Turkian kokatua.

Rol aldaketa baten bidez, emakumea beste bat zela esan zioten zaindariari.

Ikusita gezurra sinetsi zuela, Palestriion esklaboak halatsu konbentzitu zuen militarra 10

Ohaidea uzteko, eta, hori lortzeko, esan zion

Sekulako gogoia zuela bizilagun zaharraren emazteak berarekin ezkontzeko.

Utzi aurretik, militarrek hainbat opari eman zizkion emakumeari.

Sorpresaz harrapatu zuten agurearen etxean, eta adulteriogile izateagatik zigortu zuten.

II. ARGUMENTUA

Atenastar gazte bat eta prostituta libre bat zeharo maiteminduta daude. Mutil gaztea Naupaktosera⁴ abiatzen da mandatari gisa. Orduan, militar batek prostituta harrapatzen du eta Efesora eramaten du indarrez. Atenastar gaztearen esklaboa itsasoratu egiten da bere ugazabari gertatutakoaren berri emateko, baina bidean harrapatu egiten dute eta 5 militarren eskuetan jartzen dute opari gisa. Egoera horretan, esklaboak gutuna idazten dio bere ugazabari, Efesora etor dadin. Gaztea ahalik eta bizkorren joaten da, eta bere aitaren lagun batek hartzen du etxean, militarrenaren albo-alboko etxean, hain zuzen ere. Esklaboak bi etheen arteko horman pasabide bat zulatzen du. Era horretan, 10 maitaleak inor konturatu gabe elkartu daitezke, eta esklaboak prostituta gaztearen ahizpa bikia etorri dela sinetsarazten du. Bizilagunak bere bezero bat kontratatzen du militarri ezkontza eskatzeko. Militarrek gezurra sinesten du, eta neska gaztea uzten du, bizilagunaren babespeko⁵ bat berarekin ezkonduko dela uste duelako. Baina, horren ordez, militarra jipoitu egingo dute adulteriogilea izateagatik. 15

PERTSONAIAK⁶

PIRGOPOLINIZES⁷, militarra

ARTOTROGO⁸, Pirgopolinizesen parasittoa

⁴ Lepanto ere deitua, Greziako hiri bat da, Heleniar Errepublikakoa; Korintoko golkoan kokatzen da.

⁵ Jatorrizkoan *clienita* 'klientea'; klienteak ugazabak baino maila sozioekonomiko baxuagoa izaten zuen, baina ez zen esklaboa.

⁶ Plautoren pertsonaien izenak askotan mintzodun izenak dira eta esanahiren bat dute, grekoz nahiz latinez. Horri buruz gehiago jakiteko, ikusi López 1991.

⁷ Grekoz, *pyrgos* ('borroka-ehelantzen gaineko dorrea') eta *polinices* ('askotan garailea').

PALESTRION⁹, Pleusiklesen eta militarren esklaboa

PERIPLEKTOMENO¹⁰, agurea, militarren bizilaguna

ESZELEDRO¹¹, Pirgopolinizesen esklaboa

FILOKOMASIA¹², Pleusiklesen neska-lagun gaztea

PLEUSIKLES¹³, atenastar gaztea

LURZION¹⁴, Pirgopolinizesen esklabo gaztea

AKROTELEUTIA¹⁵, prostituta, Periplektomenoren babespekoa

MILFIDIPA¹⁶, Akroteleutiaren emakume esklaboa

PERIPLEKTOMENOREN ESKLABO GAZTEA

KARION¹⁷, Periplektomenoren sukaldaria.

ESKLABO BORREROA

Ekintza Efeson gertatzen da.

I. EKITALDIA

AGERRALDI BAKARRA

PIRGOPOLINIZES, ARTOTROGO

PIRGOPOLINIZES.— (*Etxetik atera eta barruan dauden esklaboekin hitz egin.*) Zeru oskarbi bateko eguzki-printzak baino distiratsuago utzi behar didazue ezkutua: ordua iristen denean itsutu ditzala etsaien osteak bataila erdian. Izan ere, nire ezpata kontsolatu

⁸ Grekoz, *artos* ('ogia') eta *trogo* ('jan, irentsi').

⁹ Grekoz, *palaistrites* 'atletikoa', 'malabarista'.

¹⁰ Latinez, *plecto* 'nahasi', 'korapilatu'; *peri-* eta *-menos* grekozko aurrizkia eta atzizkia dira.

¹¹ Latinez *scelus* 'gaiztakeria', eta grekoz *drao* 'egin'.

¹² Grekoz, *filos* 'laguna', 'maitalea' eta *komos* 'oturuntza', 'orgia'.

¹³ Grekoz, *pleusis* 'nabigazioa' eta *kleos* 'ospea'; hortaz, 'marinel ospetsua'.

¹⁴ Latinez, *lurco* 'jatuna'.

¹⁵ Grekoz, *akroteleution* 'amaiera', 'muturra'.

¹⁶ Grekoz, *milphidippa* 'betazalak erortzen zaizkiona'.

¹⁷ Grekoz, *karis* 'krustazeo txikia, ezkira antzekoa' eta *karion* etnonimoa 'Karia lurraldekoa', maltzur eta gaiztoaren irudia.

nahi diat, erabili gabe hainbeste denbora pasatzeagatik ez dadin atsekabetu edo desesperatu. Gaixoa etsaiak birrintzeko irrikan zegok. Baina, non sartu da Artotrogo?

ARTOTROGO.— Hemen, gizon adoretu eta zorionekoaren ondoan; esan liteke printze bat, gerrari bat dela... Marte jainkoak¹⁸ ere ez luke zure balentriak bereekin konparatzeko ausardiarik izango.

PIRGOPOLINIZES.— Nori buruz ari haiz, gurguriotarren¹⁹ ordokietan salbatu nuen hari buruz? Neptunoren²⁰ biloba eta bertako nagusi-burua zen Bunbomakides Klitomestoridisarkidesi²¹ buruz?

ARTOTROGO.— Bai, bai, gogoratzen dut. Urrezko armak zituen hari buruz ari zara, ezta? Zeinaren legioak putz eginez desagerrarazi zenituen, haizeak hostoak edo teilatu bateko lastoa desagerrarazten dituen moduan, ezta?

PIRGOPOLINIZES.— Tira, ez duk hainbesterako, ala Polux.

ARTOTROGO.— Ez da hainbesterako, ala Herkules, konta nitzakeen beste balentria batzuekin konparatuz gero, (*publikoari*) inoiz burutu ez dituen balentriekin hain zuzen; norbaitek bizitza osoan hau baino gizon gezurrontzi edo harroputzagorik ikusi badu, hemen nauka, bere esklaboa izango naiz —hori bai, bere etxean jaten diren oliba horiek erotzekoak dira—.

PIRGOPOLINIZES.— Non sartu haiz?

ARTOTROGO.— Hemen, hemen. Ala Polux! Adibidez, Indian elefante batengana joan zinenekoa eta ukabilkada batez beso bat hautsi zenionekoa.

PIRGOPOLINIZES.— Beso bat?

ARTOTROGO.— Hanka bat esan nahi nuen.

PIRGOPOLINIZES.— Ba, besterik gabe jo nian.

ARTOTROGO.— Ala Polux! Gogoz egin izan bazenu, ukabilak elefantearen larrua, erraiak eta hezurdura zeharkatuko zituzkeen.

PIRGOPOLINIZES.— Utz dezagun kontu hori.

ARTOTROGO.— Ez du merezi zuk zure balentriak niri kontatzeak, ala Herkules, primeran dakizkit-eta; (*aparte*) urdaila da pena horien guztien erruduna: belarriak sakrifikatu behar dira hortzen mesedetan, eta, beraz, bere gezurrei baietz-baietz esatea

¹⁸ Gerraren jainkoa.

¹⁹ Izen asmatua da. *Curculio* edo *gurgurio* intsektu bat izateaz gain, 'esofago' edo 'zakil' bezala ere itzul daiteke; bi adierak baliatuz, hitz-joko bat dagoela pentsatzen da.

²⁰ Ura eta itsasoaren jainkoa.

²¹ Izen asmatua da. Bunbomakidesek 'oihu eginez borrokatzen duen gizona' esan nahi du eta Klitomestoridisarkidesek 'kontseilari famatuaren eta gobernatzaile txarraren semea'.

besterik ez dago.

PIRGOPOLINIZES.— Itxaron, zer esan behar nuen?

ARTOTROGO.— Ah, bai! Badakit zer esan nahi duzun, bai, hala izan zen, ala Herkules, ezin hobeki gogoratzen dut.

PIRGOPOLINIZES.— Baina, zer?

ARTOTROGO.— Dena delakoa.

PIRGOPOLINIZES.— Ba al daukak...?

ARTOTROGO.— Oholtxoak nahi dituzu, ezta? Hemen ditut; baita puntzoi bat ere.

PIRGOPOLINIZES.— Dotore lotzen dituk hire pentsamenduak eta nireak.

ARTOTROGO.— Nire eginkizuna da zure ohiturak ondo ezagutzea eta zure desirak 40 aurrerapenarekin asmatzen ahalegintzea.

PIRGOPOLINIZES.— Eta, oraindik gogoratzen haiz?

ARTOTROGO.— Bai, jauna: ehun eta berrogeita hamar Zilizian²², ehun Eszitlatronian²³, hogeita hamar sardiniar eta hirurogei mazedoniar dira egun bakar batean hil zenituenak.

PIRGOPOLINIZES.— Beraz, zenbat dira guztira?

ARTOTROGO.— Zazpi mila.

PIRGOPOLINIZES.— Ez gehiago, ez gutxiago. Zenbaketa zehatza duk.

ARTOTROGO.— Ondo oroitzen naiz apuntatuta ez izan arren.

PIRGOPOLINIZES.— Sekulako memoria daukak, ala Polux!

ARTOTROGO.— Mokaduek gogoratzen laguntzen didate.

PIRGOPOLINIZES.— Orain arte bezala egiten baduk hire lana, egunero jango duk. 50 Beti banatuko diat nire mahaia hirekin²⁴.

ARTOTROGO.— Eta Kapadozian²⁵ ezpata kamustuta egon ez balitz, 500 gizon akabatuko zenituzkeen kolpe batez.

PIRGOPOLINIZES.— Bizitza barkatu nieran, soldadu xeheak besterik ez ziren-eta.

ARTOTROGO.— Zertarako kontatuko dizut zuri, Pirgopolinizes, gizakume guztiek dakitena? Zertarako kontatu bakarra zarela munduan zure ausardia, edertasuna eta balentriengatik? Arrazoiz maitemintzen dira emakume guztiak zutaz, hain zara ederra;

²² Zipre parean kokatutako eskualdea, Asia Txikian.

²³ Izen asmatua da, *Scytes* 'eszitiarra' eta *latro* 'mertzenario' konbinaturik: 'mertzenario eszitiarren herrialdea'.

²⁴ Umorezko pasartea da, militarrek ez baitzuen janaririk.

²⁵ Anatoliako antzinako lurraldea da, gaur egungo Turkian kokatutakoa.

atzo paliotik²⁶ tiratzen zidaten emakumeek hala zioten.

PIRGOPOLINIZES.— Zer zioten?

60

ARTOTROGO.— «Hori Akiles²⁷ da?» galdetu zidan batek. «Akiles ez, baina bere anaia izan liteke» erantzun nion nik. Orduan beste batek esan zuen: «Zein ederra den, ala Kastor! A zer nolako itxura dotorea duen; zein adats distiratsua! Zorte onekoak dira berarekin oheratzen diren emakumeak!».

PIRGOPOLINIZES.— Hori zioten?

ARTOTROGO.— Bai, biek erregutu zidaten kabalkada batean bezala eramateko zu hara.

PIRGOPOLINIZES.— Ikaragarritzko ezbeharrak duk ederregia izatea.

ARTOTROGO.— Baina hala da. Ez didate bakean uzten, inguratu egiten naute, eta zu ikusten uzteko erregutzen didate arren; zu haiengana eramatea eskatzen didate, eta horrela ezin dut zure beharrez arduratu.

PIRGOPOLINIZES.— Forora gerturatzeko ordua duk; atzo kontratatutako mertzenarioei soldata ordaindu behar zieat, Seleuko²⁸ erregeak behin eta berriz eskatu zidan-eta beretzat mertzenarioak aukeratzeko eta kontratatuzko. Gaurko eguna erregeari laguntzen emango dudala erabaki diat.

ARTOTROGO.— Orduan, goazen.

PIRGOPOLINIZES.— Eskolta, niri jarraitu! (*Forora joan eskoltarik gabe, ez daukate-eta.*)

II. EKITALDIA

LEHEN AGERRALDIA

PALESTRION

PALESTRION.— Entzuteko prest bazaudete, plazer handia izango da niretzat komedia honen argumentua kontatzea. Norbaitek entzun nahi ez badu, joan dadila, mesedez, entzun nahi duenari esertzeko tokia uzteko. Orain, festa-lekuan eserita zaudetenez,

80

²⁶ Lanitez, *pallium*. Gizonek nahiz emakumeek zeramaten lauki formako mantua zen, jatorriz greziarra; toga antzekoa, baina motzagoa; tunikaren gainetik janzten zen, gorputza inguratuz.

²⁷ Troiako gerrako heroia eta Homeroren *Iliadako* pertsonai nagusietako bat da.

²⁸ Seleuko III.ak erregealdi laburra izan zuen, K.a. 225etik K.a. 223ra. Seleukotar inperioa estatu helenistikoa izan zen; zabalerarik handiena hartu zuenean, Traziatik Indiarra iristen zen (Asia Txikiaren ekialdea, Mesopotamia eta Pertsia, Kabuleraino).

obraren izenburua eta argumentua azalduko dizkizuet. Komediaren titulua grekoz *Alazon* da, zeina latinez *gloriosus* esaten den, *harroputza*, alegia. Hiri hau Efeso da; forora joan berri den militar hori nire ugazaba da. Harroputza, lotsagabea, nazkagarria, eta guztiz zinauslea eta adulteriogilea da. Emakume guztiak atzetik dituela uste du, baina, dagoen tokian dagoela, denen barregarri besterik ez da. Horregatik, hemen prostituta gehienek muturra okertuta dute, berari ezpainekin imintzioak eginez iseka egiten ibiltzen direlako. Niri dagokidanez, orain dela gutxitik naiz militarren esklabo. Beste baten esklabo izatetik bere esklabo izatera nola iritsi nintzen kontatzea gustatuko litzaidake. Adi egon, orain hasiko naiz-eta argumentua azaltzen. Atenasen ugazaba gazte paregabea nuen. Prostituta batez maiteminduta zegoen, zeinaren ama Atikakoa²⁹ zen, atenastarra hain zuzen ere. Prostitutak ere maite zuen nire ugazaba. Hori da maitatzeko modurik onena. Ugazaba Naupaktosera joan zen mandatari-lan garrantzitsu baterako. Orduan, halabeharrez, militarra Atenasera iritsi zen, eta ugazabaren neska-laguna limurtu nahian hasi zen. Haren amaren konfiantza lortzeko, ardoa, soinekoak eta jaki ugari eman zizkion. Aukera ikusi zuenean, militarrek amari kaka egin zion burutik behera, eta alaba ezkutuan hartu eta itsasontzian Efesora ekarri zuen indarrez. Ugazabaren neska-laguna bahitu zutela konturatu nintzenean, ontzi bat lortu nuen ahalik eta bizkorren, eta Naupaktosera itsasoratu nintzen gertatutakoaren berri emateko nire ugazabari. Itsas zabalean ginela, jainkoek nahi bezala, bat-batean pirata batzuk azaldu ziren eta gure itsasontzia atzeman zuten. Beraz, nire ugazaba aurkitu ordez, nireak egin zuen. Harrapatzaileek militarren eskuetan jarri ninduten opari gisa; haren etxera eramanez ninduten, non ugazabaren neska-lagun atenastarrarekin elkartu nintzen. Neska-lagunak ikusi ninduean, berehala ezagutu eta begiekin keinuak egin zizkidan, hitz egin ez niezaion. Geroago, aukera izan zuenean, bere zoritxarraz kexatzen hasi zitzaidan. Etxe honetatik ihes egiteko eta Atenasera bueltatzeko desiratzen zegoela esan zidan, nire ugazaba maite zuela, eta ez zegoela inor militarra bezainbeste gorrotatzen zuenik. Emakumearen sentimenduak ezagutu ondoren, oholtxoak hartu eta gutun bat idatzi nuen. Zigilatu eta ezkutuan eman nion merkatari bati, Atenasko ugazabari entregatzeko. Mezuan hona etortzeko eskatu nion; eta merezi izan du hori egiteak, berehala etorri baita, eta bere aitaren lagun zahar batek, agure atsegin batek, albo-alboko etxean hartu baitu. Agurea gonbidatu maitemindua laguntzeko prest dago, eta bere laguntza eta aholkuak oso baliagarriak dira. Nik antolatu dudan trikimailu paregabe baten bidez,

²⁹ Greziako eskualdea, zeinean kokatua baita Atenas.

maiteminduek elkar ikusten dute. Militarrak prostitutari emandako gelan, non 140
emakumeak bakarrik egoteko aukera duen, pareta zulatu nuen, emakumeak bertatik,
sekretuan, beste aldera pasatzeko bidea izateko. Agurea, noski, jakinaren gainean dago;
berak eman zidan ideia. Militarrak emakumea zaintzeko aukeratu duen esklaboa
gizagaixo hutsa denez, asmaketa argien eta azpijoko lotsagabeen bitartez, amaraun bat
jarriko diogu begietan, eta lortuko dugu ikusten duena ez ikustea. Orain ez zaitezte 150
nahasi, gaur emakume berak biren papera egingo du-eta: etxe honetan bizi denarena eta
alboko etxean bizi denarena. Beti emakume bera izango da, baina beste bat dela
antzeztuko du. Era horretan, ziria sartuko diogu bere zaindariari. Baina adi! Ate-zaratak
entzun ditut agurearenean! Bizilaguna atera da. Bera da aipatu dudan agure atsegina.

BIGARREN AGERRALDIA

PERIPLEKTOMENO, PALESTRION

PERIPLEKTOMENO.— (*Etxe barruan daudenei hitz egin*) Ala Herkules! Hemendik
aurrera teilatutik³⁰ sudurluzeren bat ikusten baduzue eta ez badizkiozue hankak
txikitzen, laurdenkaturik utziko zaituztet. Bazirudik bizilagunak etxean gertatzen den
guztiaren lekuko eta epaile direla! Nor uste dute direla teilatutik begira egoteko!
Denentzako agindu zorrotza duk hau: gure teilatuan ikusten baduzue militarraren
etxekoren bat, edonor, Palestrion ez bada, bota kalera. Oilo bat, uxu bat, edo tximu baten 160
bila ari dela esaten badu ere, ez baduzue hil arte jipoitzen, zuenak egin dik. Are gehiago,
txikitu haren hezurak, hezurrik gabe geratu eta tortolosetan³¹ jolastearen aurkako legea
errespetatu dezaten, gonbidatuak etxean hartzen dituztenean.

PALESTRION.— Entzun dudanagatik, badirudi etxekoek gaiztakeriaren bat egin dutela,
agureak nire kideen hezurak txikitzeko agindua eman du-eta; baina ni kanpoan utzi nau,
eta bost axola besteei zer egiten dien. Gerturatu egingo natzaio.

PERIPLEKTOMENO.— Ez al duk hori Palestrion?

PALESTRION.— Zer moduz, Periplektomeno?

PERIPLEKTOMENO.— Aukeratzerik banu, inor gutxi ikusiko nikek orain hi baino 170

³⁰ Etxe erromatarretako gune batek (*atrium*) teilatu irekia zuen (*compluvium*). Bertatik euriaren ura jasotzen zen lauki formako urmael batean (*impluvium*).

³¹ Jatorrizko testuan hitz-joko bat dago. Latinezko *talus* bi gauza izan daiteke: batetik, 'astragaloa' (orkatilako hezurra) eta hortik 'orpoa' edo 'orkatila', eta bestetik 'zikiroaren tortolosa' eta horrekin egiten den 'dadoa' eta 'dado-jolasa'. Beraz, sudurluzeek hezurak txikituta badituzte, ez dute tortolosetan aritzeko dadorik izango, eta ez dute *lex alearia* hautsiko.

atsegin handiagoz.

PALESTRION.— Zer gertatzen da? Zergatik iskanbila hori etxeko esklaboekin?

PERIPLEKTOMENO.— Gureak egin dik!

PALESTRION.— Baina, zer gertatu da?

PERIPLEKTOMENO.— Harrapatu egin gaitiztek.

PALESTRION.— Zertan?

PERIPLEKTOMENO.— Orain dela gutxi zuen etxeko esklaboetako batek teilatutik Filokomasia ikusi dik nire gonbidatuarekin musuka.

PALESTRION.— Nork ikusi du?

PERIPLEKTOMENO.— Hire kideetako batek.

PALESTRION.— Zein kidek?

PERIPLEKTOMENO.— Ez zekiat, azkar egin dik alde.

PALESTRION.— Uste dut... nireak egin duela.

PERIPLEKTOMENO.— Korrika hasi denean, garrasi eginez galdetu zioat: «Aizak! Zer egiten duk teilatuan?»; hark, ihes egiten ari zela, tximu eme baten bila zebilela erantzun zidak.

PALESTRION.— Gaixoa ni! Piztia ezdeus horren erruz hilko naiz! Baina, Filokomasia 180
oraindik zure etxean dago?

PERIPLEKTOMENO.— Atera naizenean behintzat bai.

PALESTRION.— Esaiozu mesedez gure etxera pasatzeko ahalik eta bizkorren, nire kideek bertan ikus dezaten; jakina, helburutzat ez badu bere maite-jolasen laguntzaile izateagatik gu, esklabo gaixoak, gurutziltzatzea.

PERIPLEKTOMENO.— Hori esan zioat nik; beste ezer behar ez baduk...

PALESTRION.— Bai, esaiozu emakume bezala jokatzeko jarraitzeko, eta ez ditzala alde batera utzi emakumezkoaren berezko abileziak eta arteak.

PERIPLEKTOMENO.— Nola?

PALESTRION.— Ba, hitzen bidez limurtuz, esklaboari sinetsarazi behar dio ikusi duena ez duela ikusi; hemen ehun aldiz ikusi badute ere, ukatu dezala; ahoa, mingaina, azpikeria, maltzurkeria, ausardia, atrebentzia, burugogorkeria eta engainurako gaitasuna ditu; zin eginez aurre egin behar die juramentuekin gezurretan dabilela leporatzen 190
diotenei; bere baitan daramatza gezurrak, faltsukeriak, zinaustek; trebezia dauka horretarako, baita limurtzeko eta engainatzeko gaitasuna ere. Izan ere, emakume batek, malezia gutxi badu ere, ez dauka inoiz ortuzainarengana eskean joan beharrik, bere

baitan baratze oso bat dauka-eta, azpikeria mota guztietarako gozagarritz betea.

PERIPLEKTOMENO.— Esango zioat hor baldin badago. Baina, zer darabilkik buruan, Palestrion?

PALESTRION.— Isildu momentu batez, ideiak ordenatu eta zer egingo dudan hausnartu behar dut-eta. Filokomasia musuka ikusi duen kide iruzurgileari nola egin iruzur pentsatu behar dut, ikusi duena ikusi gabea izan dadin.

PERIPLEKTOMENO.— Pentsa ezak, ni bitartean horra joango nauk. (*Aparte, aldizka publikoari eta Palestrioni begiratu*) Ikusi nola dagoen, bekokia zimurtuta, kezkatuta, pentsakor. Bularra kolpatzen du bi hatzekin. Bihotza aterako zaiola dirudi. Begira, buelta eman du; ezkerreko eskua ezkerreko hankaren gainean jarri du, eta eskuineko eskuarekin kontuak egiten ditu hatzekin eskuineko hanka kolpatuz. Kolpe ederrak ematen dizkio; zaila da zer egingo duen asmatzea. Kriskitin egin du hatzez; urduri dago, etengabe posturaz aldatzen da. Hara! Burua astintzen hasi da, ziurrenik otu zaiona ez zaiolako gustatzen. Hori bai, zernahi ere den, ez digu gordinik zerbitzatuko, bere puntuan baizik. (*Palestrioni begiratu, zeinak besoa kokotxaren azpira eraman duen*) Eta orain igeltseroarena egiten ari da, zutabe bat jarri dio kokotxari. Demontre! Ez zait batere gustatzen eraikuntza hori, badakit-eta poeta latindar³² batek ere aurpegia zutabe baten gainean duela, eta bi guardiek etengabe zaintzen dutela, gau eta egun. Zein postura ederrean dagoen orain, komedia bateko benetako esklabo hantustearen moduan, ala Herkules! Ez du amorerik emango eskuartean duena amaitu arte. Uste dut zerbait otu zaiola. (*Palestrioni*) Zerbait egitea otu bazaik, ez lokartu makilakadez esnatu nahi ez baduk. Hiri ari nauk hizketan, Palestrion, esnatu, goiza da-eta.

PALESTRION.— Entzuten ari natzaizu.

PERIPLEKTOMENO.— Ez al haiz konturatzen? Etsaia gainean daukak eta atzetik datorrik eraso! Har ezak erabaki bat; baliabideak eta errefortzuak lortu; bizkor, ez duk lasai ibiltzeko garaia. Aurrea hartu, bilatu haizpitarte ezkuturen bat armada ingurutik eramateko, inguruan hartu etsaiaren bidea, gure aldekoei lagundu, arerioei hornigaiak kendu, eta ziurtatu bide bat, zeinetatik elikagaiak hiretzat eta hire legioentzat arriskurik gabe iritsi daitezkeen. Lanera, premiazkoa da-eta; asmatu, bilatu, aurkitu bizkor modu bat hemen ikusi dena ikusigabea izateko, gertatutakoa gertatugabea. (*Publikoari*) Eginkizun ederrari ekin dio! Gotorleku sendoa eraiki du. (*Palestrioni*) Palestrion, eginkizun honen ardura hik hartzen baduk, gure etsaien porrota ziurra duk.

³² Nevio poetaz ari da. Komedia hau antzezten hasi zen garaian kartzelan zegoen bere obretan Metelotarren aurka aritzeagatik. Ziurrenik, Plautok elkartasuna adierazi nahi zion poetari.

PALESTRION.— Arduratuko naiz, hitza ematen dizut. 230

PERIPLEKTOMENO.— Eta nik bermatzen diat hire helburuak lortuko ditukela.

PALESTRION.— Jupiterrek bedeinka zaitzala.

PERIPLEKTOMENO.— Ez al didak hire planen berri eman nahi?

PALESTRION.— Isilik egon nire amarruen munduan sartzen zaitudan bitartean, zuk nire helburuak nik bezainbeste ezagutzea nahi dut-eta.

PERIPLEKTOMENO.— Ondo gordeko diat hire sekretua.

PALESTRION.— Nire nagusia elefante-larruan bildurik dago, ez gizakiaren larruzalean, eta ez da harri bat baino argiagoa.

PERIPLEKTOMENO.— Bazekiat.

PALESTRION.— Jarraitu nahi dudan estrategia honako hau da: Filokomasiaren ahizpa bikia bere maitalearekin batera Atenasera etorri dela esango dut; bi ahizpak berdin-berdinak direla eta maitaleak etxean hartu dituzula azalduko dut. 240

PERIPLEKTOMENO.— Oso ondo! Primeran! Estrategia paregabea iruditzen zaidak!

PALESTRION.— Beraz, nire kideak jakinarazten badio militarri Filokomasia beste batekin musuka ikusi duela, zure etxean musuka eta besarkatzen ikusi duena haren ahizpa zela sinetsaraziko diot kideari.

PERIPLEKTOMENO.— Ederki! Nik berdina esango diat militarrek galdetzen badit.

PALESTRION.— Baina, zuk esan berdin-berdinak direla; Filokomasiari planaren berri eman behar zaio, militarrek zer bait galdetzen badio zalantza egin ez dezan.

PERIPLEKTOMENO.— Zein trikimailu burutsua! Baina, zer egingo dugu militarrek biak aldi berean ikusi nahi baditu?

PALESTRION.— Lasai, makina bat aitzakia eman ditzakegu: ez dagoela etxean, buelta 250 bat ematera joan dela, lotan dagoela, apaintzen ari dela, komunean dagoela, jaten edo edaten ari dela; okupatuta dago, ez dauka denborarik, ezin du. Kontua egoera hori atzeratzea da, eta horretarako esandako gezur guztiak sinetsarazi behar dizkiogu.

PERIPLEKTOMENO.— Ados hirekin.

PALESTRION.— Sartu etxean, eta Filokomasia han badago, esaiozu lehenbailehen etxera joateko, eta adierazi, kontatu, azaldu xehetasun guztiak ahizpa bikiaren plana pentsatu dugun eran jarraitzeko.

PERIPLEKTOMENO.— Ikusiko duk zein ondo egingo duen. Zer bait gehiago?

PALESTRION.— Etxean sartu zaitetz.

PERIPLEKTOMENO.— Oraintxe bertan. (*Etxean sartu.*)

PALESTRION.— Ni ere etxera noak, ea disimuluan jakiten dudan nire kideetako nor 260
joan zen tximu emearen bila. Ziur nagok ezin izan diola eutsi tentazioari, neskaren
etxeke esklaboren bati kontatzeko ikusi zuen guztia: emakumea alboko etxean ezezagun
batekin musuka ikusi zuela. Ondo ezagutzen dut-eta horrelakoetan gertatzen dena: «Ezin
isilean gorde nik bakarrik dakidana». Emakumea ikusi zuena nor den jakiten badut,
berarekin erabiliko dizkiat nire parrapeak eta eraso-dorreak³³. Prest nagok, ziur bainaiz
ausardiaz borrokatuz esklabo hori harrapatuko dudala. Ez badut lortzen nor den jakitea,
ehiza-txakur baten moduan usainduko diat azal-emearen aztarnak aurkitu arte. Baina
ate-zaratak entzun ditiat gurean; ahotsa apalduko diat, Filokomasiaren zaindaria atera 270
da-eta.

HIRUGARREN AGERRALDIA

ESZELEDRO, PALESTRION

ESZELEDRO.— (*Militarraren etxetik atera*) Ez banaiz ametsetan ibili teilatutik, ala
Polux, ziur nagok ugazabaren neska-laguna, Filokomasia, ikusi dudala bizilagunaren
etxean bere hondamena bilatzen.

PALESTRION.— (*Aparte*) Entzuten diodanetik, hori duk emakumea musuka ikusi
duena.

ESZELEDRO.— Nor zagok hor?

PALESTRION.— Hire kidea. Zer moduz Eszeledro?

ESZELEDRO.— Pozten nauk hirekin elkartzeaz, Palestrion.

PALESTRION.— Zergatik? Berriren bat al daukak? Tira, kontaidak.

ESZELEDRO.— Beldur nauk...

PALESTRION.— Zer?

ESZELEDRO.— Ez zekiat ez ote dugun etxe honetako neskame-morroï guztiek gurutze
zorigaiztokora salto egingo, ala Herkules!

PALESTRION.— Hik egingo duk salto gurutzera; niri ez zaizkidak halako jauziak eta 280
akrobaziak gustatzen.

ESZELEDRO.— Ez al dakik etxean egin den delitua?

PALESTRION.— Zer gertatu duk?

³³ Hizkera militarra darabil: erasoan erabiltzen ziren hala parrapeak (*vinea*) nola eraso-dorreak (zurezko gerra-makina).

ESZELEDRO.— Lotsagabekeria bat.

PALESTRION.— Orduan hiretzat gorde ezak, ez kontatu, ez dut jakin nahi-eta.

ESZELEDRO.— Ba, kontatu egingo diat. Bizilagunaren etxeko teilatutik ibili nauk gure tximu emearen bila.

PALESTRION.— Pizti bat beste baten atzetik, ala Polux!

ESZELEDRO.— Jainkoek madarikatu hazatela!

PALESTRION.— Hi madarikatuko haute! Baina jada hasi haizenez, segi ezak kontatzen.

ESZELEDRO.— Kontua duk kasualitatez bizilagunaren patiora begiratu dudala, eta bertan Filokomasia mutil gazte ezezagun batekin musuka ikusi dudala.

PALESTRION.— Eszeledro, eszena izugarria³⁴ kontatzen didak.

ESZELEDRO.— Ziur nagok hori ikusi nuela.

PALESTRION.— Hik?

ESZELEDRO.— Bai, neuk neure bi begi hauekin.

290

PALESTRION.— Bai zera, hori sinesgaitza duk eta ezin izan duk ikusi.

ESZELEDRO.— Zer uste duk, erdi itsua naizela?

PALESTRION.— Hobeto mediku bati galdetzen badiok. Baina jainkoak hirekin badaude, ez ezak istorio hori kontatu; burua eta hezur guztiak galduko dituk; modu batera edo bestera, hireak egingo dik istorio horiek zabaltzen jarraitzen baduk.

ESZELEDRO.— Zergatik?

PALESTRION.— Argi zagok: Filokomasiari buruzko gezur beltz bat zabaltzen baduk, hireak egin dik. Eta hire salaketa egia baduk ere, hireak egin dik, haren zaindaria haizelako.

ESZELEDRO.— Ez zekiat zer izango den nitaz! Ziur nagok ikusi dudala.

PALESTRION.— Hi heurean, gizagaixo hori?

ESZELEDRO.— Zer nahi duk kontatzea ba? Ikusi dudana duk. Gainera, oraindik 300 bizilagunaren etxean zagok.

PALESTRION.— Ez al dago etxean?

ESZELEDRO.— Sartu eta ikusi heuk. Ez diat eskatuko niri besterik gabe sinestea.

PALESTRION.— Hala egingo diat.

ESZELEDRO.— Nik hemen itxarongo diat, eta, bitartean, erne egongo nauk, ea noiz bueltatzen den bigantxa bazkatzetik ukuilura. (*Palestrion militarren etxean sartu.*) Zer

³⁴ Latinezko testuan *scelus* 'krimena' eta *Sceledrus* izen bereziaren arteko hitz-jokoa egiten da; euskaraz, *eszena izugarria* itzuli dut, *Eszeledro*ekin soinu-jokoa egiteko.

egingo diat nik orain? Militarrek emakumearen zaindaria izateko agindu zidaan. Salatzen badut, nireak egin dik, baina, era berean, isiltzen banaiz eta gertatutakoaz jakiten badu, akabatuta nagok. Ba al dago ezer emakumea baino okerragorik eta arriskutsuagorik? Teilatutik nabilen bitartean, bere gelatik atera duk. A zer-nolako ausarkeria, ala Polux! Militarra konturatzen bada, ala Herkules, ziur etxe osoa jarriko duela hankaz gora, eta ni ere hankaz gora gurutzean. Larrua jokatzeari baino, hobeto 310 txintik ere esaten ez badut, ala Herkules; ezin diat babestu bere burua saltzen dabilen emakumea.

PALESTRION.— (*Militarraren etxetik atera*) Eszeledro! Eszeledro! Ba al zagok munduan hi baino lotsagabe handiagorik? Eta jainkoen etsai eta arerio handiagorik?

ESZELEDRO.— Zer gertatzen duk?

PALESTRION.— Ez al dituk erauziko gertatu ez dena ikustarazten diaten begi horiek?

ESZELEDRO.— Gertatu ez dena?

PALESTRION.— Ez nitek hiregatik intxaur ustel bat ere emango.

ESZELEDRO.— Zer gertatzen da?

PALESTRION.— Zer gertatzen den galdetzen duk?

ESZELEDRO.— Zergatik ez dut galdetuko?

PALESTRION.— Zergatik ez duk mihi luze hitzontzi hori mozten?

ESZELEDRO.— Zergatik moztu beharko nuen?

PALESTRION.— Filokomasia etxean dagoelako. Hire hitzen arabera, berriz, 320 bizilagunaren etxean ikusi duk ezezagun batekin besarkatzen eta musuka.

ESZELEDRO.— Ez zekiat zergatik elikatzen haizen irakaz,³⁵ garia hain merke egonik.

PALESTRION.— Zergatik diok hori?

ESZELEDRO.— Erdi itsu hagoelako!

PALESTRION.— Alproja hori! Hi ez hago erdi itsu, ala Polux, guztiz itsu baizik, neska etxean dago-eta.

ESZELEDRO.— Etxean?

PALESTRION.— Etxean, ala Herkules!

ESZELEDRO.— Bai zera, Palestrión, nirekin jolasten ari haiz.

PALESTRION.— Orduan eskuak lohituta izan beharko nitizkek.

ESZELEDRO.— Zergatik?

PALESTRION.— Lohiarekin jolasteagatik.

³⁵ Garai hartan uste zen irakak itsutu egiten zuela.

ESZELEDRO.— Kontuz ibili!

PALESTRION.— Kontuz ibili heu, Eszeledro, ez badituk begiak eta hitzak aldatzen. Baina ate-zaratak entzun ditiat.

ESZELEDRO.— (*Periplektomenoren etxea seinalatu*) Ez zioat begirik kenduko hemengo ateari, emakumeak ez du-eta handik hona pasatzeko beste aukerarik, sarrera honetatik ez bada.

PALESTRION.— Baina etxean dago-eta. Benetan, Eszeledro, ez dakit zer arazo 330 daukaken buruan.

ESZELEDRO.— Nik bazekiat zer ikusten dudan eta zer pentsatzen dudan, nigan konfiantza osoa diat. Inork ez zidak sinetsaraziko emakumea ez dagoela etxe hartan; hemen geratuko nauk, ni konturatu gabe gure etxera sar ez dadin.

PALESTRION.— (*Aparte.*) Hauxe duk nire aukera, ziria sartuko zioat. (*Eszeledrori*) Nahi duk konbentzitzea burugabea haizela eta itsu hagoela?

ESZELEDRO.— Jakina, saiatu hadi.

PALESTRION.— Eta ez daukakela ez zentzu izpirik ez begirik?

ESZELEDRO.— Bai horixe.

PALESTRION.— Orduan, hik esaten duk ugazabaren ohaidea etxe horretan dagoela?

ESZELEDRO.— Are gehiago, ziurtatzen diat bertan gizon batekin musuka ikusi dudala.

PALESTRION.— Badakik ez dagoela gure etxetik beste etxera joateko inolako igarobiderik, ezta?

ESZELEDRO.— Bai, bazekiat. 340

PALESTRION.— Ez patiorik, ez baratzerik, inplubioa ez baduk, ezta?

ESZELEDRO.— Bai, bazekiat.

PALESTRION.— Orduan, emakumea etxean balego, etxetik ateratzen ikusiko bahu, milaka zigorrada mereziko hituzkeela uste duk?

ESZELEDRO.— Bai.

PALESTRION.— Ez kendu begirik bizilagunaren ateari, ez dugu nahi-eta gu konturatu gabe emakumea etxera etortzea.

ESZELEDRO.— Hori duk nire helburua.

PALESTRION.— Oraintxe bertan esango zioat kalera etortzeko.

ESZELEDRO.— Bai zera. (*Palestrion militarren etxean sartu*) Irrikan nagok jakiteko egia den nik ikusitakoa edo, berak esan duen moduan, emakumea etxean dagoen. Nik begiak ditiat aurpegian, eta ez ditiat inorenak behar. Morroi hau kakajale bat duk eta beti

ugazabaren ohaidearen inguruan gertu zabilek. Jateko orduan, bera duk deitzen duten lehena; segituan ematen ziotek janaria. Bakarrik hiru urte inguru egon duk gurekin eta 350 neskame-morroï bat bera ere ez ditek sekula bera bezain ondo tratatu. Baina ni orain honetaz arduratu behar nauk, ateari begirik ez kentzeaz. Hemen geratuko nauk. Hemendik ez zidatek ziria sartuko, ala Polux!

LAUGARREN AGERRALDIA

PALESTRION, FILOKOMASIA, ESZELEDRO

PALESTRION.— (*Filokomasiarekin militarren etxetik atera*) Gogoratu nire jarraibideak.

FILOKOMASIA.— Nahikoa aldiz errepikatu dizkidak.

PALESTRION.— Ez dakit-eta trebezia nahikoa izango duzun.

FILOKOMASIA.— Hamar emakumek batera baino trebezia handiagoa diat; zintzoenei ere maltzurak izaten erakusteko gai izango nindukek, maltzurkeria soberan dut-eta. Jarraitu hire amarruarekin. Ni hor jarriko nauk, higandik zertxobait aldentuta.

PALESTRION.— Aizak, Eszeledro.

ESZELEDRO.— (*Besoak zabaldu Periplektomenoren ate aurean*) Hemen geratuko nauk nire lana betetzen, baina belarriak ditiat eta esan nahi duken guztia.

PALESTRION.— Uste diat postura horretan, besoak zabalik, hilgo haizela, harresitik kanpo zintzilikatzen hautenean.

ESZELEDRO.— Zergatik?

360

PALESTRION.— Begiratu ezkererantz. Nor duk neska gazte hori?

ESZELEDRO.— Ala jainko hilezkorrak! Ugazabaren ohaidea duk, zalantzarik gabe.

PALESTRION.— Hori uste diat nik ere, ala Polux! Tira, nahi dukenean.

ESZELEDRO.— Zer?

PALESTRION.— Presta hadi hiltzeko.

FILOKOMASIA.— Non dago, ni errugabea izanik, desohore handiena egitea leporatzen didan esklabo bikain hori?

PALESTRION.— Hor daukazu. Berak esan dit kontatu dizudan guztia.

FILOKOMASIA.— Lotsagabe horrek, bizilagunaren etxean musuka ikusi naukela diok?

PALESTRION.— Mutil gazte ezezagun batekin, gainera.

ESZELEDRO.— Horixe esan dut, ala Herkules.

FILOKOMASIA.— Ikusi egin naukela diok?

ESZELEDRO.— Nire bi begi hauekin, ala Herkules.

FILOKOMASIA.— Uste diat gabe geratuko haizela, ikusten dutena baino gehiago ikusteagatik.

ESZELEDRO.— Ikusi dudana benetan ikusi dut, ala Herkules! Eta inork ez nau kontrakoaz konbentzituko.

FILOKOMASIA.— Ergel hutsa nauk hi bezalako zoro batekin denbora galtzeagatik. 370
Hireak egin dik, ala Polux.

ESZELEDRO.— Ez mehatxatu! Badakit gurutziltzatuta iritsiko naizela hilobira; han daude nire aurrekoak ere: aita, aitona, birraitona eta herenaitona. Zure mehatxuek ez dute nire begiak erauztea lortuko. Baina, Palestrion, esan gauzatxo bat, mesedez: nondik atera da hau?

PALESTRION.— Etxetik. Nondik bestela?

ESZELEDRO.— Etxetik?

PALESTRION.— Ez haiz nitaz fidatzen?

ESZELEDRO.— Bai, fidatzen nauk. Harrigarria duk handik hona pasa izana. Etxean ez diagu ez terrazarik, ez lorategirik, ez leihorik burdin-sarerik gabe. Baina argi zaukaat han ikusi dudala.

PALESTRION.— Oraindik jarraitzen duk bera salatu nahian?

FILOKOMASIA.— Agian benetan gertatu da bart gauean amestu dudana, ala Kastor! 380

PALESTRION.— Zer amestu duzu?

FILOKOMASIA.— Kontatuko dizuet, baina erne egon, mesedez. Bart gauean amestu nuen nire ahizpa bikia bere mutil-lagun batekin Atenastik Efesora etortzen zela, eta bizilagunak etxean hartzen zituela.

PALESTRION.— (*Aparte*) Kontatzen ari dena Palestrionen ametsa da.

FILOKOMASIA.— Oso pozik nengoen nire ahizpa etorri zelako, baina arazoak sortuko zizkidala sentitzen nuen. Nire esklaboetako batek leporatzen baitzidan (hain zuzen hik 390 egin duken moduan) gazte ezezagun batekin musuka ibiltzea. Nire ahizpa bikia zen, ordea, gaztea musukatzen zuena. Hori da amestu dudana: niri buruz gezurrezko salaketa zabaltzen zela.

PALESTRION.— Bat datoz amestu duzuna eta esna gertatzen ari zaizuna, ezta? Horra hor zure ametsa egia bihurturik, ala Herkules! Sartu etxean eta otoitz egin³⁶. Uste dut militarri hau dena kontatu behar zaiola.

FILOKOMASIA.— Egokiena hori da. Ez dut onartuko nire aurkako salaketa faltsu lotsagarria egin izana. (*Militarraren etxean sartu*).

ESZELEDRO.— Uste diat hanka sartu diatela; jada bizkar osoan zeukaat azkura³⁷.

PALESTRION.— Hireak egin dik; badakik, ezta?

ESZELEDRO.— Orain behintzat ziur nagok etxean dagoela. Dagoen lekuan dagoela ere, ezin zioat begirik kendu etxeko ateari.

PALESTRION.— Baina, Eszeledro, zinez antzera gertatzen duk emakumearen 400 ametsen eta hire susmoetan, bietan ikusten baituzue hura musuka.

ESZELEDRO.— Jada ez zekiat zer pentsatu: ikusi nuela uste nuena, orain ez diat uste ikusi nuenik.

PALESTRION.— Uste diat ez haizela berandu konturatu, ala Herkules! Ugazabak gertatutakoaren berri izan balu, hireak egingo zian.

ESZELEDRO.— Azkenean konturatu nauk hodei batek begiak tapatu dizkidala.

PALESTRION.— Hori argi zegoan aspalditik, ala Polux!, emakumea etxean zegoen-eta.

ESZELEDRO.— Ez zekiat zer esan. Ikusi nian, baina ez nian ikusi.

PALESTRION.— Ia gureak egin duk hire ergelkeriengatik, ala Polux! Ugazabarekin leiala izateak ia hire hondamena ekarri dik. Baina bizilagunaren atea entzun diat; isildu 410 egingo nauk.

BOSGARREN AGERRALDIA

FILOKOMASIA, ESZELEDRO, PALESTRION

FILOKOMASIA.— (*Periplektomenoren etxetik atera; emakume esklabo bati hitz egin*)
Piztu sua aldarean, Efesoko Diana³⁸ goretsi nahi dinat-eta; eskerrak eman nahi zizkionat eta Arabiako lurrin atseginarekin ihinzatu nahi dinat, Neptunoren erreinuan babestu nauelako eta olatu harroek indar handiz astindu nauten egoera nahasietan zaindu nauelako.

ESZELEDRO.— Ai ene Paestrion! Paestrion!

³⁶ Ohikoa zen jainkoei babeska eskatzea amets bat izan ondoren.

³⁷ Emango zizkioten zartadengatik.

³⁸ Efeson Artemisaren tenplua zegoen; greziarren Artemisa da, hain zuzen, erromatarren Diana jainkosa.

PALESTRION.— Eszeledro! Ai ene Eszeledro! Zer nahi duk?

ESZELEDRO.— Oraintxe bertan hortik atera den emakumea Filokomasia al da, ugazabaren ohaidea? Ala ez da bera?

PALESTRION.— Bera zirudik, ala Herkules, baina ez zekiat nola lortu duen handik hona pasatzea, benetan bera bada behintzat.

ESZELEDRO.— Ez duk uste bera denik?

PALESTRION.— Bera zirudik.

ESZELEDRO.— Goazen eta deituko zioagu. Aizu! Filokomasia! Zer galdu zaizu etxe 420 horretan? Zeren bila zabilta? Zergatik ez didazu erantzuten? Zurekin ari naiz hizketan.

PALESTRION.— Bakarrizketan ari haizela zirudik, ala Polux!, berak ez dik txintik ere esaten-eta.

ESZELEDRO.— Zeuri diotsut, emagaldu lotsagabe horri. Zer zabilta bizilagunen etxeetatik bueltaka?

FILOKOMASIA.— Norekin ari zara hizketan?

ESZELEDRO.— Zurekin. Norekin bestela?

FILOKOMASIA.— Eta nor zara zu? Ezagutzen al nauzu?

ESZELEDRO.— Nor naizen galdetzen didazu?

FILOKOMASIA.— Zergatik ez dizut galdetuko ez dakidan zerbaiti buruz?

PALESTRION.— Hau ez baduzu ezagutzen, nor naiz ni?

FILOKOMASIA.— Gorrotagarri bat, bestea bezala.

ESZELEDRO.— Ez gaituzu ezagutzen?

FILOKOMASIA.— Ez bata, ez bestea.

ESZELEDRO.— Beldur naiz...

PALESTRION.— Zeren beldur?

ESZELEDRO.— Nahastu eta nonbait galdu egin garela, berak ez gaitu-eta ezagutzen.

PALESTRION.— Ziurtatu nahi diat gu geu garela, eta ez beste inor, beharbada 430 sekretuan bizilagunen batek gu trukatu gaitu-eta.

ESZELEDRO.— Ni behintzat neu nauk.

PALESTRION.— Baita ni ere, ala Polux! Zureak egin du, emakumea. Zeurekin ari naiz, Filokomasia!

FILOKOMASIA.— Zer erokeria da hori? Zergatik deitzen nauzu hain izen konplikatua?

PALESTRION.— Arraioa! Nola deitzen zara orduan?

FILOKOMASIA.— Justa.

ESZELEDRO.— Hori ez da justoa, Justa; izen faltsu bat asmatu duzu, Filokomasia. Ez zara justoa, ez Justa, eta nire ugazabaren aurkako injustizia egiten ari zara.

FILOKOMASIA.— Ni?

ESZELEDRO.— Bai, zeu.

FILOKOMASIA.— Ni? Atzo arratsaldean etorri nintzen-eta Efesotik Atenasera nire maitalearekin, gazte atenastar batekin.

ESZELEDRO.— Eta esaidazu: zertara etorri zara Efesora?

440

FILOKOMASIA.— Nire ahizpa bikia hemen dagoela jakin dut, eta bere bila etorri naiz.

ESZELEDRO.— Maltzurra zara.

FILOKOMASIA.— Hobeto esanda, ergela, ala Kastor, zuekin hizketan egoteagatik. Banoa.

ESZELEDRO.— (*Filokomasiari besotik heldu*) Ez zara joango, ez dizut utziko-eta.

FILOKOMASIA.— Utzidazu!

ESZELEDRO.— Harrapatu zaitugu. Ez zaitut askatuko.

FILOKOMASIA.— Ez banauzu askatzen, zaplaztekoa hartuko duzu.

ESZELEDRO.— (*Palestrioni*) Zer egiten duk hor geldik, memelo horrek? Zergatik ez diok beste besotik heltzen?

PALESTRION.— Ez diat bizkarrean azkura sentitu nahi. Nola dakit nik hori Filokomasia dela, eta ez bere antza duen beste bat?

FILOKOMASIA.— Askatuko nauzu, bai ala ez?

ESZELEDRO.— Ez, noski; eta zeure borondatez ez bazatoz, arrastaka eramango zaitut etxeraino indarrez.

FILOKOMASIA.— (*Agurearen etxea seinalatu*) Ni etxe honetan nago, baina ez da nirea. Nire etxea Atenasen dago, Atikan. (*Militarraren etxea seinalatu*) Etxe horrekin ez daukat zerikusirik, eta zuek biok ez zaituztet ezagutzen.

450

ESZELEDRO.— Salatu nazakezu nahi baduzu, baina ez zaitut inolaz ere askatuko, ez badidazu hitzematen etxean sartuko zarela.

FILOKOMASIA.— Ez didazu beste aukerarik uzten, edonor zarelarik ere. Zin degizut askatzen banauzu etxe horretan sartuko naizela.

ESZELEDRO.— Ados, askatuko zaitut.

FILOKOMASIA.— Ba, aske nagoenez, banoa (*Korrika atera eta agurearen etxean sartu*).

ESZELEDRO.— Hori duk emakume baten hitzak balio duena.

PALESTRION.— Eszeledro, heuk askatu duk harrapakina; bera duk gure ugazabaren ohaidea, ezin dik beste inor izan. Nahi duk gauza bat egin?

ESZELEDRO.— Zer?

PALESTRION.— Ekarri ezpata bat.

ESZELEDRO.— Zer nahi duk egin ezpata batekin?

PALESTRION.— Ustekabean sartuko nauk bizilagunaren etxean ezpatarekin, eta 460
Filokomasiarekin musuka ikusten dudan aurrenari lepoa moztuko zioat.

ESZELEDRO.— Bera dela uste duk, ezta?

PALESTRION.— Uste ez, ala Polux, argi zaukaat.

ESZELEDRO.— Harrigarria da nola antzeztu duen!

PALESTRION.— Tira, ekarri ezpata.

ESZELEDRO.— Oraintxe bertan. (*Militarraren etxean sartu*)

PALESTRION.— Ziur ez dagoela ez zaldi-gaineko ez oinezko soldadurik, emakumea baino ausartagorik eta trebeagorik. Zein ondo egokitu duen hizkera rol bakoitzerako! Nolako erraztasunez engainatu duen nire kidea, bere zaindari arretatsua. Zein baliagarria den bi etheen arteko paretako pasabide hori.

ESZELEDRO.— (*Militarraren etxetik atera*) Ai ene, Palestrión! Ez zagok ezpataren beharrik.

PALESTRION.— Zergatik?

ESZELEDRO.— Ugazabaren ohaidea etxean dago-eta.

PALESTRION.— Zer? Etxean zagok?

ESZELEDRO.— Bere ohean etzanda.

470

PALESTRION.— Kontatzen didakenaren arabera, hireak egin dik, ala Polux!

ESZELEDRO.— Zergatik?

PALESTRION.— Alboko etxeko emakumea ukitzen ausartu haizelako.

ESZELEDRO.— Ikaraturik nagok, ala Herkules!

PALESTRION.— Baina inork ezin dik ukatu hura honen ahizpa bikia denik. Hura zuan bizilagunaren etxean musuka ari zena.

ESZELEDRO.— Argi zagok: hura zuan, hik dioken moduan. Ugazabari kontatu izan banio, nireak egingo zian.

PALESTRION.— Zentzuduna bahaiz, ez duk txintik ere esango. Esklabo batek esaten duena baino gehiago jakin behar dik. Banoak, ez dut nahi-eta hire kontuetan zerikusirik

izan. Bizilagunaren etxean egongo nauk; ez ditiat gustuko hire istiluak. Ugazaba etortzen bada eta nigatik galdetzen badu, han egongo nauk; hoa hara nire bila.

480

SEIGARREN AGERRALDIA

ESZELEDRO, PERIPLEKTOMENO

ESZELEDRO.— Joan egin duk, bere ugazabaren beharrak alde batera utziz, esklaboa ez balitz bezala! Dударik gabe, emakumea orain barruan zagok, etxean; ohean etzanda ikusi diat orain dela gutxi. Orain ezinbestekoa duk erne egotea.

PERIPLEKTOMENO.— (*Etxetik atera eta bere kasa hitz egin, Eszeledro ikusi ez balu bezala*) Bizilagunaren esklaboek, gizona ordeztu, emakumea naizela uste ditek, ala Herkules! Iseka egiten zidatek. Gogor hartu ditek emakume libre bat, jatorriz eta izatez librea, nire gonbidatua, atzo nire beste gonbidatuarekin iritsi zena Atenastik, eta iseka egin ziotek kalean!

490

ESZELEDRO.— Nireak egin dik, ala Herkules! Niregana zetorrek zuzenean. Agure horrek esaten duenagatik, gorriak ikusiko ditiat.

PERIPLEKTOMENO.— (*Aparte*) Beregana gerturatuko nauk. (*Eszeledrori*) Hi izan al haiz, Eszeledro, orain dela gutxi nire gonbidatuari etxe aurrean iseka egin diona?

ESZELEDRO.— Entzudazu bizilagun horrek, arren eskatzen dizut!

PERIPLEKTOMENO.— Entzuteko?

ESZELEDRO.— Barkamena eskatu nahi dizut.

PERIPLEKTOMENO.— Hik niri barkamena eskatu? Hain lotsagarrikeria larria egin ondoren? Maltzur horrek uste duk lapurretatik bizi zaretelako edozer egin dezakezuela?

500

ESZELEDRO.— Utziko zenidake...

PERIPLEKTOMENO.— (*Hitz egiten jarraitu kasurik egin gabe*) Baina, jainkoen izenean! Ez badidate goizetik gauera etengabe eta luzaroan hi astintzen uzten nire etxeko erretenak eta teilak puskatu hituelako, handik hire parekoa zen tximu eme baten atzetik ibili hintzelako, nire gonbidatua bere neska-lagunarekin besarkatzen eta musuka zegoenean zelatatu huelako, hire ugazabaren ohaide bertutetsua salatzeraz ausartu haizelako, eta ni ere salatu naukelako; baita nire gonbidatua nire etxe aurrean gogor hartu dukelako ere. Ez badidate uzten hi gurutziltzatzen, irainez blai eginda utziko diat

510

ESZELEDRO.— Hain nago larriturik, Periplektomeno, non ez dakidan lehenik

azalpenak eskatu, edo —azkenean hura hau ez bada, eta hau hura ez bada— barkamena eskatu, egokiagoa iruditzen bazaizu; baina oraindik ez dakit zer ikusi dudan; zure gonbidatu hori gurearen oso-oso antzekoa baita, bera ez bada.

PERIPLEKTOMENO.— Sartu hadi nirekin etxera, begiratzera; segituan jakingo duk. 520

ESZELEDRO.— Utziko didazu?

PERIPLEKTOMENO.— Utzi? Agindu bat duk; sartu eta ikusi behingoz!

ESZELEDRO.— Hori egingo dut. (*Periplektomenoren etxeko aterantz gerturatu*)

PERIPLEKTOMENO.— (*Militarraren etxeko ateari begira hitz egin*) Aizu! Filokomasia! Pasa zaitetz bizkor nire etxera; premiazkoa da. Gero, Eszeledro gure etxetik ateratzen denean, pasa zaitetz berriro bizkor zeuen etxera. Espero diat arazorik ez egotea, ala Polux. Eszeledrok ez badu emakumea han ikusten... atea ireki da.

ESZELEDRO.— (*Periplektomenoren etxetik atara*) Ala jainko hilezkorrak! Ezin dut sinetsi jainkoak bi emakume hain berdinak, bera izan gabe, sortzeko gai direnik! 530

PERIPLEKTOMENO.— Eta orain zer?

ESZELEDRO.— Zigor ederra merezi dut.

PERIPLEKTOMENO.— Orduan, ez da bera?

ESZELEDRO.— Bada, baina ez da.

PERIPLEKTOMENO.— Emakume hau ikusi duk?

ESZELEDRO.— Ikusi dut bai, eta baita zure gonbidatua ere, biak elkar besarkatzen eta musuka.

PERIPLEKTOMENO.— Ez da bera?

ESZELEDRO.— Ez dakit.

PERIPLEKTOMENO.— Nahi al duk behingoz jakin?

ESZELEDRO.— Horixe nahi dudala.

PERIPLEKTOMENO.— Sartu hadi oraintxe bertan zeuen etxean, eta begiratu ea bertan dagoen bestea.

ESZELEDRO.— Ados; ideia paregabea da. Oraintxe bueltatuko naiz. (*Militarraren etxean sartu*)

PERIPLEKTOMENO.— Bizitzan ez diat inor ikusi hain era dibertigarrian eta harrigarrian gizon bati adarra jotzen, ala Polux! Bazetorrek berriro ere.

ESZELEDRO.— Periplektomeno, arren eskatzen dizut, jainko eta gizon guztien 540 izenean, eta nire ergelkeriengatik eta zure belaunengatik³⁹...

³⁹ Belaunak gizakia zutik mantentzen duten indargunea dira. Gainera, erregutzaileak beti besarkatzen dizkio belaunak barkamena eskatzen dionari.

PERIPLEKTOMENO.— Zer eskatzen didak arren?

ESZELEDRO.— Arren, barkatu nire ezjakintasuna eta ergelkeria. Azkenean ohartu naiz burugabe bat, itsu bat, txoropito bat izan naizela, Filokomasia barruan dago-eta.

PERIPLEKTOMENO.— Eta orain zer, maltzur hori? Ikusi dituk biak azkenean?

ESZELEDRO.— Ikusi ditut.

PERIPLEKTOMENO.— Ekarri hona hire ugazaba.

ESZELEDRO.— Aitortzen dut zigorrik okerrena merezi dudala eta zure gonbidatua iraindu dudala; baina nire ugazabaren ohaidea zela pentsatzen nuen, nik zaindu behar nuena, ugazabak agindu zidan moduan. Ezinezkoa da putzu beretik bi aldiz ateratako ura 550 bi emakume horiek bezain berdina izatea. Orobat aitortzen dut inplubiotik zure etxera begira ibili nintzela zelatan.

PERIPLEKTOMENO.— Nolatan ez duk aitortuko nire begiekin ikusi nuena? Handik ikusi huen nire gonbidatua beste gonbidatu horrekin musuka?

ESZELEDRO.— Bai, zergatik ukatuko nuke ikusi nuena? Baina pentsatu nuen emakumea Filokomasia zela.

PERIPLEKTOMENO.— Uste duk, jakinaren gainean egonda, nire bizilagunari horrelako bidegabekeria bat egingo niokeela nire etxean? Horren mespretxagarria naizela uste duk? 560

ESZELEDRO.— Orain dena dakidanez, ohartzen naiz burugabe baten moduan jokatu dudala. Baina ez nuen maleziaz egin.

PERIPLEKTOMENO.— Okerrago: lotsarik gabe. Esklabo batek bere begiak, eskuak eta hitzak kontrolpean izan behar ditik.

ESZELEDRO.— Hemendik aurrera ahoa zabaltzen badut, esaten dudana ziur banago ere, torturatu nazazu; amore emango dut. Baina orain barkadazu hau, mesedez.

PERIPLEKTOMENO.— Nire sumindura menperatzen saiatuko nauk. Pentsatuko diat ez dukela maleziaz egin. Oraingoan barkatuta hago.

ESZELEDRO.— Eta zu jainkoek bedeinka zaitzatela! 570

PERIPLEKTOMENO.— Eutsi ezak hire mingaina, ala Herkules!, jainkoen izenean; aurrerantzean, hik ondo dakikena ere ahaztu, ez ikusiarena egin.

ESZELEDRO.— Eskerrik asko, aholku ona da. Horrela jokatuko dut. Baina, hori da dena?

PERIPLEKTOMENO.— Hoa!

ESZELEDRO.— Ez duzu nitaz ezer gehiago behar?

PERIPLEKTOMENO.— Ni ahaztea!

ESZELEDRO.— (*Aparte.*) Honek ez zidak egia esan. Zein onbera izan den ni barkatzen! Bazekiat azpikeriatan dabilela. Militarra forotik etxera bueltatzean harrapatu egingo naitek. Berak eta Palestrionek ni saltzea pentsatu ditek: susmatzen nian eta 580 aspaldi konturatu ninduan. Baina nik gaur ez diat amua irentsiko, ala Herkules. Nonbaitera egingo diat ihes eta bertan ezkutatuko nauk egun batzuk, kontu hau konpondu arte eta haserrealdia lasaitu arte. Zigor ederra merezi diat, herri traidore oso batek mereziko lukeenaren parekoa. Baina, dena dela, etxean sartuko nauk.

PERIPLEKTOMENO.— Azkenean joan duk. Ziur nagok sakrifikatutako zerri batek berak baino buru gehiago duela, ala Polux! Nolatan da posible pertsona bati sinetsaraztea ez duela ikusi ikusi duena? Orain bere begiek, belarriek eta pentsamenduek gure alde egingo ditek. Oraingoaz gauzak primeran ari zaizkiguk ateratzen. Emakumeak 590 laguntza ikaragarri ona eta dibertigarria eman ziguk. Senatura bueltatuko nauk berriro, Palestrion orain nirekin etxean dago-eta; Eszeledro, berriz, kanpoan zagok. Orain *quoruma* izan zezakeagu senatuan. Barrura noak, ez dut nahi-eta ni kanpoan naizen artean karguen zozketa⁴⁰ egitea.

III. EKITALDIA

LEHEN AGERRALDIA

PALESTRION, PERIPLEKTOMENO, PLEUSIKLES

PALESTRION.— (*Etxeko beste bie*) Zuek itxaron momentu bat hor barruan, mesedez, Pleusikles. Utzidazue niri aurrena joaten, ez baitugu nahi enboskadarik egotea egingo dugun bilera dela eta. Leku seguru bat behar dugu orain, non etsaiek ez duten gure planaren berri izango, eta ez duten harrapakin gisa erabiliko; plan batek ona izateari 600 uzten dio etsaiei balio badie, eta balio badie, beti izango da kaltegarria zuretzat; plan on bat okertu daiteke, hari buruz hitz egiteko lekua kontu eta arreta gutxiz aukeratzen bada. Are gehiago, etsaiek zure planaren berri badute, ahoa tapatu eta eskuak lotuko dizkizute, eta zuk haiei egin nahi zeniena haiek zuri egingo dizute. Ondo begiratuko dut ea ezkerrean edo eskuinaldean gure elkarrizketaren ehiztariren bat dagoen, belarri formako sareak dituen. Hemendik kale bukaerara arte basamortua da, ez dago inor eta.

⁴⁰ Kontsul eta magistratuen artean probintziak zozketatzeaz ari da. Banaketa hori konparatzen du azpizokoa pertsonai bakoitzak jokatuko duen rolen banaketarekin.

Deitu egingo diet. Periplektomeno! Pleusikles! Gerturatu hona!

610

PERIPLEKTOMENO.— Hemen gaudek, hire zerbitzura.

PALESTRION.— Erraza da aginduak ematea gizon bikainei. Orduan, barruan erabaki dugun moduan jarraituko dugu plana?

PERIPLEKTOMENO.— Ez zagok ezer egokiagorik.

PALESTRION.— ***⁴¹ Zuri zer iruditzen zaizu, Pleusikles?

PLEUSIKLES.— Nolatan irudituko zait gaizki zuei ondo iruditzen zaizuena? Ez zagok inor hi baino fidelagorik.

PERIPLEKTOMENO.— Adeitasunez eta gozotasunez hitz egiten duk!

PALESTRION.— Horrela hitz egin behar da, ala Polux!

PLEUSIKLES.— Baina kontu honek guztiak birrindu egiten nau, eta nire burua eta nire gorputza torturatzen ditu.

PERIPLEKTOMENO.— Zerk torturatzen zaitu? Esan.

PLEUSIKLES.— Ni zuregana, adineko gizon batengana, zure eta zure merituen duin ez diren umekeriekin etortzeak; eta zuk eginahalak egiteak niri atsegin emateko; eta zuk niri maitasun-kontuetan laguntzearren, zure adinean saihestu ohi diren gauzak egiteak. Larritu egiten nau zu, zahartzaroan, arazo honetan sartzeak. 620

PALESTRION.— Egiten duzunak larritzen bazaitu, zure maitatzeko era berria da; zuk ez duzu maite; maitalea baino gehiago, maitalearen itzala zara, Pleusikles.

PLEUSIKLES.— Ez al zaitut nekaraziko, zure adinean, nire maite-kontuekin!

PERIPLEKTOMENO.— Zer ari zara esaten? Akerontera⁴² iristeko gertu nagoela uste duzu? Hilobitik hain gertu nagoela? Luzaroegi bizi izan naizela uste duzu? Berrogeita hamalau urte besterik ez ditut, primeran ikusten dut nire begiekin, nire hankak bizkorrak dira eta nire eskuak trebeak. 630

PALESTRION.— Ilezuria da, baina ez du inondik ere agure baten izaera. Bere aiurri gozo eta atsegina kementsu dago.

PLEUSIKLES.— Arrazoia duk Palestrion, gazte baten prestutasuna dauka-eta, ala Polux!

PERIPLEKTOMENO.— Are gehiago, ene gonbidatua; zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta gehiago ikusiko duzu zure maite-kontuekin laguntzeko nire prestutasuna.

PLEUSIKLES.— Zertarako ikusi bistakoa dena?

⁴¹ Eskuizkribuetan testuaren zati bat falta da.

⁴² Akeronte hilen munduko bost ibaietako bat da; Karontek txalupa batean eramaten zituen hil berrien arimak Akerontetik Hadesera.

PERIPLEKTOMENO.— ***⁴³ Zeuk bizi dezazun, kanpoan bilatu gabe. Batek ez badu maitasuna ezagutu, nekez jasango du maitemindu baten jarrera; eta nik oraindik badaukat gorputzean maitasun apur bat, baita umoreak ere, eta ez naiz oraindik plazerretik eta gozamenetik aldendu. Bromazalea, dibertigarria eta mahaikide atsegina izan naiteke; eta ez diet lagunei hizketaldia eteten. Desegokitasunak saihesten ditut mahaikideekin nagoenean; nire berriketaldiaren denbora neurtzen dut, eta nirea amaitzen dut beste ahots bat hitz egiten hastean. Ez dut listua botatzen, ez naiz lerdea dariola egoten, ez eta mukia dariola ere; Efeson jaio nintzen, ez Apulian; ez naiz Animulakoa⁴⁴.

PALESTRION.— Zein dibertigarria den erdi-agure hau! Aipatu dituen ezaugarriak baditu, argi dago Venusen⁴⁵ barnetegian hezi zutela.

PERIPLEKTOMENO.— Nire adeitasunari buruzko hitzak baino gehiago, adeitasun horren adierazgarriak emango ditut. Nik ez dut inoiz oturuntza batean beste baten prostituta laztandu; ez naiz inoiz lehena izaten gisatua harrapatzen edo kopa altxatzen; ez dut inoiz liskarrik sortu mahaikideen artean ardo gehiegi edan dudalako. Norbait gorrotagarria iruditzen bazait, etxera joaten naiz, ez diot hitz egiten; mahaian Venus, laguntasuna eta alaitasuna zaintzen ditut.

PALESTRION.— Egia esan, zure ohitura guztiek atsegina egiten zaituzte, ala Polux. Emazkidazu hiru gizon ohitura horiekin eta letoiarekin⁴⁶ ordainduko dizkizut.

PLEUSIKLES.— Ziur ez zenukeela aurkituko bere adineko beste bat, edozein egoeratan hain atsegina eta lagun ona denik.

PERIPLEKTOMENO.— Nire ohiturak ezagututa, zuk zeuk aitortuko duzu gaztea naizela: egoera zeinahi ere den, lagunduko zaituztet. Gizon gogor eta bortitz bat behar duzu? Horretarako nago hemen. Gizon xamur bat behar duzu? Itsaso barea baino lasaiagoa izango naiz, Favonio⁴⁷ baino atsegingarriagoa. Zuregatik, mahaikide dibertigarriena, parasitorik handiena edo hornitzailerik hoberena bihurtuko naiz. Dantzatu behar badut, ez duzu aurkituko ni baino dantzari malguagorik.

PALESTRION.— (*Pleusiklesi*) Abilezia guztien artean, zein aukeratuko zenuke?

⁴³ Eskuizkribuetan testuaren zati bat falta da.

⁴⁴ Animula Apuliako herrixka ezdeus bat zen, Italian kokatutakoa. Hango biztanleek fama txarra zuten.

⁴⁵ Venus maitasunaren jainkosa da, baina baita adeitasunarena eta jokabide egokiarena ere.

⁴⁶ Urreak bezain beste balio zuen.

⁴⁷ Mendebaldeko haizearen jainkoa da, atsegina eta lasaia.

5. Bibliografia

- Alberdi, X., 1993, “[Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak](#)”, *Fontes Linguae Vasconum* 64, 425-442.
- Alberdi, X., 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Amunátegui, C. F., 2006, “[Algunas consideraciones sobre las cortesana en la comedia de Plauto](#)”, *Estudios públicos* 104, 347-362.
- Bilbao, G., 1996, “[Jean Mekol Garindañekoaren Edipa pastorala \(1793\)](#)”, *ASJU* 30-1, 239-332.
- Euskaltzaindia, 1994, 14. araua. *Adizki alokutiboak (hikako moldea)*. http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/arauak/Araua_0014.pdf [Kontsulta: 2018-05-03].
- Euskaltzaindia, 1997, 76. araua. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*. http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0076.pdf [Kontsulta: 2018-01-14].
- Euskaltzaindia, 2002, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia, 2015, 82. araua. *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*. http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0082.pdf [Kontsulta: 2018-01-14].
- Faraone, C. eta McClure, L., 2006, *Prostitutes and Courtesans in the Ancient World*, Madison: University of Wisconsin Press.
- González, F., 1995, *Oscilaciones entre género masculino y femenino documentadas en latín medieval*, Madril: Universidad Complutense de Madrid.
- Herreros, C. eta Santapau M. C., 2005, “[Prostitución y matrimonio en Roma: ¿Uniones de hecho o de derecho?](#)”, *Iberia* 8, 89-111.
- Jaka, A. eta Marin-Lacarta, M., 2014, “[Txinatar literatura euskaraz: zeharbidezko itzulpenetatik zuzenekoetara itzultzaile-bikoteen eskutik](#)”, *Uztaro* 89, 39-64.
- Jimenez, P., 1978, “[El teatro latino](#)”, *Estudios clásicos* 81-82, 323-340.
- Lizartza, R., 2009, *Hitanoa mintza hadi, lagun! hika egiten ikasteko eskuliburua*, Donostia: Mara Mara.
- López, M., 1991, *Los personajes de la comedia plautina: nombre y función*, Lleida: Pagès Editors.

- Mančić, Z., 2009, “O nekim odstupanjima u posrednom predvodu: Hezelova legija prokletih (De fordømtes legion) u posrednom prevodu na srpski jezik”, *Mostovi* 146, 117-124.
- Montalbán, R., 2016, “Prostitución y explotación sexual en la Antigua Roma”, *Raudem* 4, 155-177.
- Zabala, K., 2013, “Ivo Andritxen Zubi bat Drinaren gainean eta zeharbidezko itzulpena”, *Senez* 44, 123-141.

Plautoren *Miles gloriosus* en edizioak eta itzulpenak

- Bravo, J.R. (itz.), 1995, *Plauto. Comedias II*, Madril: Cátedra.
- Ciruelo, J.I. (itz. ed.), 1975, *Plauto. Miles gloriosus - El militar fanfarrón*, Bartzelona: Bosch.
- De Melo, W. (itz. ed.), 2011, *Plautus III. The Merchant; The Braggart Soldier; The Ghost; The Persian*, Cambridge MA, Londres: Harvard University Press [Loeb Classical Library].
- Ernout, A. (itz. ed.), 1932, *Plaute. Comédies IV*, Paris: Les Belles Lettres.
- González-Haba, M. (itz.), 1996, *Comedias II: La comedia de la arquilla; Gorgojo; Epidico; Los dos menecmos; El mercader; El militar fanfarrón; La comedia del fantasma; El persa*. Madril: Gredos.
- Mañas, M. (itz.), 2003, *Plauto. El soldado fanfarrón*, Cáceres: Universidad de Extremadura.
- Nixon, P. (itz. ed.), 1916, *Plautus III. The Merchant; The Braggart Warrior; The Haunted House; The Persian*, Londres: William Heinemann / New York: G. P. Putnam's Sons.
- Riley, H.T. (itz. ed.), 1912, *Plautus. The comedies of Plautus*, Londres: G. Bell and Sons.